



Motorrak berotzen

Gabiriako
Rally-esprinta
martxoaren 3an

Gipuzkoa
barnealdeko
turismo eskaintza

Jose Luis Elorza
PSE-EEko
zinegotzia

INFASIS 902 200 096

INFORMAZIO ETA LAGUNTZA
GAY ETA LESBIANENTZAT



g e h i t u

JAKINTZA IKASTOLA

Altamira auzoa ORDIZIA ☎ 943 16 05 40 Faxa: 943 16 07 90 E-mail: ordizia@ikastola.net

Euskaliten kalitatearen diploma

- 2tik 18 urtetara eskola berean
- Ikastolan, geure eskola ereduari
- Euskaraz bizi
- Gure ikasleek eleanitzak izatea lortzen dute
- Zerbitzu interesgarriak goizeko 7etatik arratsaldeko 7etara (haur zainketa, bertako jangela eta autobusa)
- Udako aktibitateak



**Deitu eta elkarriketa adostuko dugu
(943 16 05 40)**



AZKEN ETXEBIZITZAK

Eragilea:

ARIN ERAIKUNTZAK S.L.

Informazioa eta Salmenta:

943- 49-38-73

Kalitatea

Diseinua

Paregabeko Ingurua

ETXEBIZITZA ADOSATUAK (SEGURAN)



arquimedia

Goierritarra

HAMABOSTEKARIA

Argitaratzailea:

Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean)

124 posta-kutxa ORDIZIA

Tfnoa: 943 88 96 12

Faxa: 943 88 27 19

E-mail:

goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre

Maketazioa: Mikel Albisu

Publizitatea: Argider Mujika

Zenbaki honetako kronista eta

kolaboratzaileak: Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Agurtzane Bikuña, Oihana Sarasola, Aitziber Murua, Iñaki Ugalde, Aimar Maiz, Mari Flor Mendizabal.

Fotokonposizio eta maketazioa:

Goierritarra

Inprimaketa: Gertu (Zubillaga 9. Oñati)

Tirada: 8.300 ale

SSN: 1132-0907

Lege gordailua: SS-926/89

Frankeo kontzertatua: 37/76

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen
derrigorrez, aldi-karian adierazitako esanen
eta iritzien erantzukizunik.



Eusko Jaularitzako

Kultura Sailak,

Gipuzkoako Foru Aldundiak
eta

GOIERRIKO UDALEK

diruz lagundutako
aldizkaria



Gipuzkoa barnealdeko turismoa sustatu nahi da

Natura eta landa guneak liburuxka aurkeztu da

Gipuzkoa barnealdeko parke eta gune naturalak liburuxka batean bildu dituzte Goierri, Debagoiena, Urola Goi eta Behe eta Tolosaldeko turismo arduradunek. Gipuzkoa barnealdea ezagutzera emateko produktua da. Otsailaren 14an, San Balentin egunean egin zen liburuxkaren aurkezpena eta eguna aprobetxatuz, gipuzkoarrak eta gainerakoak, Gipuzkoa barnealdeaz maitemintzea lortu nahi da.

Aizkorri eta Aralar Parke Naturalak, Ernio, Leizaran, Izarraitx eta Udalatx natur guneak biltzen dira liburuxkan. "Herri bakoitzean aurki daitekeena laburbiltzen da bertan. Proiektu honekin bost eskualde hauen baliorik nagusienak diren gune, herri eta produktu turistikoak indartu nahi dira. Honetaz gain, Gipuzkoa eta Euskadi aukera turistiko bezala ikusi dutenentzat, barnealdeko turismoak eskaintzen dizkien elementuak turista po-

tentzial honi gerturatzea nahi izan dugu", esan zuen aurkezpenean Nikolas Osinalde, Goiturreko ordezkariak. Gipuzkoa barnealdera datozen turistak, gehienbat, naturak erakarrita etortzen omen dira. Beraz, egituratutako produktu bat eskaintzea da helburua, turismoa barnealdeko herri guztietara iritsiz. Aldi berean, 5 eskualdeetako botere publiko eta pribatuen artean kontzientzia turistikoa ere areagotu nahi da.

Natura eta landa guneak gida hiru hizkuntzatan argitaratu da: euskaraz, gaztelaraz eta katalanez.

'Gipuzkoa zein berdea' markaren logotipo berria ere aurkeztu da. "Gipuzkoa irudikatzen duen logotipoko lerroak gure mendiak dira eta berdez margoturik, gure kolore bezala identifikatzen dugulako", argitu dute.

Goierritarra Goierri kanpo jaso nahi dutenenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:


Hego Euskal Herria eta Espainia:	urtean 12 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa:	urtean 24 euro
Europaz kanpo:	urtean 36 euro

Eugenio Irastortza: 22 urte kartzelan

Ordiziako Eugenio Irastortza Fernandez euskal presoak 22 urte beteko ditu kartzelan, otsailaren 27an. 1995ean zigorraren hiru laurdena bete zuenez, legearen arabera kalean egon beharko luke. Hori dela eta, Eugenio Etxera plataformak bere askatasuna eskatzen du. 22. urteurrena gogoratzeko hainbat ekimen antolatu dira Ordizian.

Eugenio Irastortza, euskal preso politikoen artean kartzelan urterik gehiena daramana da: 22 urte. 43 urte ditu. 1980ko otsailaren 27an atxilotu zuten. 9 kartzeletatik pasatu da: Carabanchel, Soria, Puerto, Sevilla, Herrera, Carabancheleko ospitalea, Alcalá, Jaen eta orain, Almerian dago. Ordiziatik 1.040 kilometrorra. Eugenio Etxera plataformakoek emandako datuen arabera, "Jaenen, 1990etik 1995era bitartean, euskal presoekin batere harremanik eduki gabe egon zen. 1995eko urtarrelean eraso bortitz bat jaso zuen funtzionario talde baten eskutik. Urte bereko abuztuan berriro erasotu zuten, eta ordutik antidepresiboak hartzen ari da. Kaletik egindako presioaren ondorioz atara zuten egoera jasan ezin hartatik, baina ehunka kilometro urrutirago eraman zuten".

1995ean bete zuen Eugenio Irastortzak zigorraren hi-



Mobilizazioak

'Eugenio Etxera' plataformak deituta, bi ekitaldi nagusi izango dira datozen egunetan Ordizian.

Otsailak 27, asteazkena: 22 urte kartzelan beteko dituen egunean, arratsaldeko 7etan, giza katea egingo da Eugenio Irastortzaren askatasuna eskatzeko.

Martxoak 2, larunbata: omenaldia egingo zaio Eugenio Irastortzari, arratsaldeko 7etan Garagartza plzan.

ru laurdena. Legearen arabera, 90. artikulua dioenez, kalean egon behar luke ordiziarak. "Estatu espainiarrak horrenbeste aldiz aipatzen duen legea beteko balu, kalean egon behar luke", diote plataformako kideek. "Garbi dago presoak, txantai sistematiko baten menpean daudakatela, eta aldi berean familia zein lagunak, zigor gehitu bat jasaten ari dira. Azken batean Euskal Herri osoa dago txantaiatua", gehitu dute. Euskal gizarteak presoen giza eskubide zein polti-

koak errespetarazteko presioa egin behar duela diote.

Eugenio Irastortzak alabartxo bat izan du, "baina aita ezagutu ahal izateko 2080 kilometro egin behar ditu joan-etorrian. Urtean lau aldiz ikusten du", argitu dute.

Eugenio Irastortza kartzelan dagoen urte hauetan guztietan, dispartzioaren ondorioz, familiakoek eta lagunak 33.500.000 pezeta gastatu omen dituzte, "eta horrez gain, astero bizitza arriskuan jartzen dute".



Jose Antonio Dopazo Lazkaoko PSE-EEko zinegotzia auto istripuan hil da

Otsailaren 2an, Irura parean, Jose Antonio Dopazo, Lazkaoko PSE-EEko zinegotzi ohia auto istripuan hil zen. Urtarrilaren 31n dimisioa aurkeztu zuen Dopazok.

Ertzaintza Beasaingo Arrano tabernan

Otsailaren 15ean, goizeko 10,30ak aldean, Ertzaintza Beasaingo Arrano tabernara sartu zen, bertan zeuden pankartak eta kartelak kentzeko aginduekin. Gertaera honen inguruan, Bata-sunak salatu duenez, "berriro ere PNVk eta Sodupe ertzaia ezker abertzalea egurtzeko erabiltzen du, estatutik espainolaren aginduak txintxo-txintxo beteaz".



Mendizabal, C.B.

ITURGINTZA - BEROGINTZA

Tel.: 609 614 552 (Iñaki) - 659 644 221 (Xabi)

Txindoki, 23 - 4. ezk.

ZALDIBIA

JAUREGI
TOLDOAK s/l

Tfnok.: 943 88 02 43

943 88 01 33

BEASAIN

Marokkoarrak Idiazabalen

Otsailaren 16an, 50 marokkoarri Idiazabalgo pilotalekuan babesa eman behar izan zioten, Etxegaraten, autobusak sua hartu ondoren. Autobuseko bidaiariak onik atera ziren. Etxegarako errepidea moztuta gelditu zen eta auto pilaketa handiak izan ziren.

Bio Sasietaren inaugurazioa otsailaren 28an

Sasieta zabortegian biogasa balioztatzeko Biosasieta S.A.k eraiki duen planta inauguratuko da, otsailaren 28an, goizeko 10etan.

Zuhaitz eguna Beasainen

Otsailaren 14an, zuhaitz eguna ospatzekoa ziren Sasieta zabortegian. Alkartasuna Lizeoko ikasleak zuhaitzak landatu behar zituzten baina eguraldi txarraren ondorioz ezin izan zuten asmoa bete.




Asfamogiren Kanguras zerbitzua

Gipuzkoako Familia Monoparentalen Elkarteak, Asfamogi, familiako ardurak izanda bakarrik bizi diren pertsona helduen elkarte da. Egoera honek leudeke, bikoteen arteko banatzeak, hausturak, bikotearen heriotza... bizi dutenak. Bakardadean bizi eta seme-alabak izanez gero, familia monoparentala deitzen zaio Asfamogik pertsona

hauen erreferentzia izan nahi du. Baldintzak hobetu nahi dira, koordinatu, ordezkatu... Kultur jarduerak, hitzaldiak, zine forreak... esperientziak trukatzeko eta lagun berriak egiteko topaketak... antolatzen ditu Asfamogik.

Pertsona hauei lana erraztearren, Kanguras zerbitzua sortu da, haurrak zaintzeko. Telefono zenbakia hau da: 943482616. Lan elkarrizketetara joateko, prestakuntza zabalatzeko, lege edo administrazio mailako tramiteak egiteko, osasun arloko zerbitzua jaso ahal izateko, eskolako bileretan parte hartzeko, komunitateko bizitzan modu aktibo batean parte hartzeko... garaian haurren ardurak izateak sortzen dituen oztopoak arindu nahi ditu Kanguras zerbitzuak. Astelehenetik ostiralera, goizeko 9etatik ordu baterako ordutegia du.



Mongolia: 'Estepako arnasa', 'Marron' en diaporama berria

Otsailaren 19an zuen aurkeztekoa Jose Ramon Agirre 'Marron'-ek 'Mongolia: Estepako arnasa' diaporama berria. Argazkiak eta montaia lana 'Marron'-ek berak egin du; gidoia, berriz, Pako Aristik. Informazio gehiago Ataungo kronikan.

Gipuzkoako Euskal Kantu txapelketa apirilaren 6an hasiko da

Euskal Kantuzaleen Elkarteak antolatuta, Euskal Kantu txapelketa apirilaren 6an hasiko da. Bertan parte hartzeko baldintzak kaleratu dira: 15 urtetik gora izatea; bere izenaz zinta, disko edo CDrik grabatua ez izatea; taldeak gehienez 10 lagunekoa izatea; laguntza instrumentalari dagokionean, librea da, bai pertsona kopurua, baita haien musika-tresna edo adina ere (kantariak balioztatzen dira, ez laguntzaileak); estiloari dagokionean, estilo guztiak onartzen dira; finalean kantu bakar bat abestu beharko dute, eta kanporaketan gehienez bi kanta; eta bakarlari, bikote eta taldearen kategorian sartzen da kantariaren arabera.

Banaka, binaka eta taldeka aurkez daiteke. Hiru partaide aukeratuko dira Euskal Herriko jaialdira joateko Gipuzkoako ordezkari. Lau kanporaketa jokatuiko dira: apirilaren 6an Andoainen, apirilaren 13an, Ibarren, apirilaren 19an Beasainen eta apirilaren 27an, finala, Bergaran.

Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko: telefono zenbakia, 656708446; faxa, 943493842; posta elektronikoa, kantuzale@euskalnet.net. Eman beharreko datuak hauek dira: kantari edo taldearen izena, arduradunaren izena, telefono zenbakia eta helbidea, sartu nahi den saila, kantuen izenburuak eta kantu horien egileen izenak.

Izaro Iraeta

Zaldibitarra, ETB-2ko 'Esta es mi gente' saioa aurkezten hasi da, Emma Garcia ordiziarra Tele5ra joan zenetik. Arratsaldeko 8ak aldean pantailaratzen da saioa.

Terroristak? Zergatik?

Terroristak... Euskal Herriaren alde jarduteagatik? Gazte izateagatik? Ala, antolatzeagatik?

Sei lurraldeak bat eginda askatasunean eta bakean bizitzeko dugun eskubidea aldarrikatzeagatik, herri honen izaera mantentzen duen hizkuntza zaharra defendatzeagatik, klase arteko bereizketa apurtuko duen sozialismoan bizi nahi izateagatik, euskal hezkuntza sistema nazional baten alde borroka egiteagatik, euskal preso, errefuxiatu eta iheslari guziak etxean nahi izateagatik. Hitz batean, Euskal Herriaren alde jarduteagatik terrorista deitzen gaituzte.

Badirudi, euskal gazteen kualitate sendoa den ausardiak espainiar borroakoak koldartu dituela. Min egin die euren sasi demokrazia autoritario honekiko ezadostasuna azaltzeak, errebelde izateak. Gure beldur ezak beldurtu ditu. Urduri jartzen dira herria egunez egun, esparruz esparru inori baimenik eskatu gabe eraikitzen ari garela ikustean.

Milaka gazte, erakunde baten babesean, borroka, ildo

eta nahi berdinen inguruan antolaturik egoteagatik terrorista deitu, torturatu, atxilotu eta legez kanpo uzten gaituzte, ondo baitakite indarrak batuz eta antolatuz garaituko ditugula. Eta, gu omen gara terroristak!

Makineria errepresibo guztia martxan jarri dute Euskal Herriaren eraikuntza lanetan ari garenon aurka, bereziki sektore konprometitu eta borrokarienen aurka, geure herriaren askatasunaren alde ari garenon aurka. Hain zuzen ere, errepresio hau egunez egun pairatzen ari diren Segiko 16 gazte konprometitutuk gose greba mugagabea hasi zuten Iruñean pasa den otsailaren 2an, salbuespen egoera hau salatu eta espainiar estatu faxistari gogor eta indartsu eutsiko diogula askatasunaren ikurrari eta ez garela makurtuko erakusteko, sendaezinak izan daitezkeen ondorioak izan ditzaketelarik. 16 horien artean, hain zuzen ere, gure herrikide eta lagun den Pello aurkitzen da, egunerokotasuna alde batera utzi eta erabaki latz hau hartzera egoera are latzago batek bultzatu duena.

Esker anitz, Garzon. Eskerrak, gaur ondo ezkutuan duen alde "etikoena" erakutsi

diguzulako. Positiboa den zerbait eman diguzu: harrota-suna. Gaur inoiz baino harroago baikaude gazte izateaz, antolatzeaz, inoiz baino harroago Euskal Herriaren alde jarduteaz.

Hiri, Pello, berriz, zer esan! Ez etsi, eutsi! Gaur, are indartsuago eta harroago altxa ezak ezkerreko ukabila! Guk ere Euskal Herriko hiri-bururantz begira indartsuago eta harroago altxatuko diagu! A, nola ez, Ta segi aurrera!

Ainhoa Mujika
Ugaitz Garmendia
eta beste hiru kide

ARAMAKO TABERNA

berriro zabalik!

Menuak

Asteburueta
menuak

Karta

☎ 943 888 953

Aramako plaza

ARAMA

LOINATZ

Taberna
Jatetxea

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



RENAULT
AGENTZIA

LAZKAO
GARAJEA

Senpere Industrialdea
☎ 943 882442 - 943 888901

Faxa: 943 888901

LAZKAO

KAFA TXIGORTZEN DUGU



KAFE eta TE denda

Santa Maria kalea 19
Tel: 943 88 12 80 **ORDIZIA**

Bi goierritar gose greban

"Euskal Herriak bizi duen salbuespen egoerari aurre egitea" du helburu Segik

Segi gazte erakundeko 16 kidek gose greba mugagabea hasi zuten otsailaren 2an Iruñean, "Euskal Herriak bizi duen salbuespen egoerari aurre egiteko". Bi goierritar daude bertan. Pello Etxeberria otsailaren 2an hasi zen gose greban; Euskal Herrian Euskaraz taldeko Lierni Iztueta, berriz, otsailaren 17an. Bakoitzak bere arrazoiak eman ditu gose greba hau egiteko.

Pello Etxeberria ordiziarren esanetan, "Euskal Herria erasoak jasaten ari da arlo guztietan; herri egin gaituen zutabeak birrindu nahian. Gazteak eta gazte mugimendua kriminalizatzen saiatzen ari dira, errepresioa etengabea zelarik. Guzti honen jakitun edo kontziente bagara ere, mugitzen uzten ez gaituen frustrazio egoera batean murgildurik gaude. Daukagun guztia mantentzeko ari begira ari gara lanean. Orain arte eman ditugun erantzunak defentsiboak, koiunturalak eta murrizak izan dira, honela eraso honen izaera integral eta egiturazkoak ahaztuz". Eraso Euskal Herria osoaren kontrakoa dela dio. "Bera bezalako beharrezkoa da maila honetan erantzutea, eskubideak pribilegioak ez direla azaldu eta



Pello Etxeberria eta Lierni Iztueta, Iruñean.

arlo honetan negoziatzeko ezer ez daukagula argi utziz".

Segikoek argi daukate, "hau ezin daiteke gazteen esku geratu bakarrik, eraso orokorra den heinean beharrezkoa da bakoitzak bere eremutik erantzutea guztiok bat eginez", dio Pello Etxeberriak. "Denok dakigu Euskal Herriak jasaten duen salbuespen egoera honek urte asko daramatzala jada. Betidanik euskal gizarteak eta bereziki gazteriek egoera honi edo larriagoei aurre egiten jakin du. Jakina da euskal gazteriek antolatze eta borrokatze izan duen gaitasuna eta grina, hau behin eta berriz frogatuz: Topagunean, Miarritzen, ikastetxeetan, kalean, gaztetxean eta abar luze bat. Eta badakigu Estatu espainiarrari eta frantsesari honek nolako min

handia egiten dion. Honegatik argi utzi nahi dugu euskal gazteria behar den guztietan jarraituko duela antolatzen eta borrokatzen".

Euskal Herrian Euskarazekoak ere bai

Otsailaren 17an, Euskal Herrian Euskaraz taldeko Lierni Iztueta ordiziarrek ere bat egin zuen Segikoen gose grebarekin. Astebeteko gose greba egingo du honek. "Azken urteetan bai estatu espainiarretik eta baita ere estatu frantziarretik euskal herritarrok jaso ditugun erasoak, etengabeak izan dira: Askatasuna eta Segiren ilegaltasunak, Haika, Ekin, Xaki, 18/98 sumarioaren barnean, Euskal Herrian, bai euskalgintzan, euskal kulturaren, presoen inguruan, eta abarren lanean gabiltzanen aurkako jarraipen judiziala eta

Mobilizazioak

Segik mobilizazioak deitu ditu aste honetarako, 'Borroka astea' antolatu dute. Gaur, otsailak 22, 'Borroka eguna', eguerdiko 12,30etan manifestazioa izango da Ordizian eta iluntzean, 8etan, Beasainen.

Bihar eta etzi, 23an eta 24an, Beasaingo Zubimuzu plazan eta Ordiziako Arboledan baraualdiak egingo dituzte. Igandean, baraualdiari amaiera emateko, eskualde mailako manifestazioa egingo dute iluntzeko 7etan, Ordiziako plazatik abiatuta.

Datorren asteburuan, azkenik, martxoaren 1etik 3ra, Bruselara martxa egingo dute.

atxilotzeak. Eraso guzti hauen aurrean, argi dugu, ezin garela eskuak gurutzaturik egon, estatuen estrategi zanpatzaileari aurre egin behar diogu, eta horretarako Euskal Herriaren eraikitze lanean dihardugun herritar guztiok badugu zeregin; eraso hauek salatzeaz gain, herritar bakoitzak bere eremuan, euskalgintzan, irakaskuntzan, kulturen, kirolean, enpresetan, sindikatuetan eta abarretan, lanean jarraitu oztopo guztiak gaindituz eta elkarlana bultzatuz", zehaztu du Lierni Iztuetak.



GENERALI
Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN



aulia
TOLARE
SAGARDOTEGIA

Aulia-enea
☎ 943 80 60 66 **LEGORRETA**

Jose Luis Elorza, Beasaingo PSE-EEko zinegotzia:

"Edozein joko edo planteamendu politikoen artean pertsonaren bizitzaren balioa jokoan egon"

Jose Luis Elorza, PSE-EEko Beasaingo zinegotziarekin izan gara, bere alderdiko zinegotzien aurkako atentatuaz eta haren ondorioz izandako kargu uzteen inguruan hitz egiteko. Martxoan egingo den alderdi sozialistaren kongresuaz ere jardun gara.

Zinegotziak

Ordiziako udaletxean PSE-EEko zinegotzirik ez dago. Ordiziako Iñaki Dubreuilek iaz eta aurreko legegintzaldian Rosek, atentatuak jasan zituzten. Lazkaon Jose Antonio Dopazok, dimititu berria zuen, otsailaren 2an auto istripuan hil aurretik. ETAK PSE-EEko zinegotzien aurkako atentatuak hasi zituenean, bizkartzainarekin ibiltzera behartu zituen alderdi sozialistak euren zinegotziak. Hortik dimisioak etorri dira.

Dimisio horien aurrean, ondoko balorazioa egiten du Jose Luis Elorzak: "Bi arlo bereiztuko nituzke. Batetik, egoera pertsonalak, eta horretan zer esan handirik ez daukat. Bakoitza libre da egoera honek bere bizitzan duen eragina aztertzeke eta ondorioak ateratzeko". Bestetik, orokorrean, egoera penagarri batean gaudela dio. "Jende askorentzat nik uste



ez dela oso erraza ulertzea, egoera bizi ez den bitartean. Politika gauza bat da baina bizitza pertsonalean, momentu askotan, bizitza jokatzen da. Politikoki egoera larria da herri hauetan eta irtenbidea ikusiko dugu zein den. Hala ere nik ikusten dut ez dela gure alderdiko arazoa bakarrik, orokorrean, miseria moral baten ondorioa da. Hau da, pertsona batzuk ulertzea zilegi dela, politika egiteko, beste pertsona batzuei bizitza kentzea edo bizitza erabat izurratzea. Hori onartezina da".

Atentatuak izaten direnean eta bizkartzainak erabili behar izateak zer pentsamendu sorrarazten dituen galdetu diogu. "Bi sentsazio izaten dira. Alde batetik, izugarriko pena eta bestetik, egoera honek, seguritate arloan energia asko gastatu behar izatea. Izugarri mugatzen du

bizitza, eta familiakoak, ingurukoak... baldintzatzen dira. Momentu batzutan, leproso baten sentsazioa izaten da, kutsatuta egongo bagina bezala. Ez bakarrik norbere buruarekin, baizik eta batzutan, besteengan sortzen den erre-akzioagatik. Egun batzuetan gogorra izaten da, batez ere atentatuak gertuan izaten direnean".

Irtenbidea

Euskal Herrian dagoen era bateko eta besteko sufrimenduari irtenbidea emateko ez du politikan gehiegi sinesten Elorzak, nahiz eta bera politikan aritu. "Politikak pauso batzuk eman behar ditu, pauso garrantzitsuak, baina nik uste dut kate-maila bat bezala dagoela, apurtuta dagoena, eta hori lotu beharra daukagu. Nahaste-borraste bat egin dugu azkeneko urte askotan, euskal izaerarekin eta

euskal politikarekin. Nahaste-borrastea, bizitzaren balore oinarritzkoenekin. Gazte sektore bat badago gure gizartean, ETaren munduan dabilena, erreferente horiek erabat galduta dituztenak. Arazoa da, jende horrek, berearekin politikan jokatu dezaketenen pertsonak ez dituztela pertsona bezala ikusten, baizik eta elementu edo beste traste bat bezala, honela bizitza kentzea joko politikoko elementu bezala hartuz. Edozein joko edo planteamendu politikoen artean inoiz ez dardila egon pertsonaren bizitzaren balioa jokoan. Arazo nagusia hori da. Ez hainbeste zein planteamendu politiko dauden atzetik. Gazte guztien artean, balore horiek barneratzen ez diren bitartean, oso zaila ikusten dut egoera honi buelta osoa ematea. Politika-ren erronka nagusia da, azkeneko urteotan sortu dugun giro nazkagarria gainditzea. Ez edukietan bakarrik, formetan ere bai. Beste giro batean gauzak planteatzen hastea, errespetu minimoarekin, eta horrek gizartearengan ere ondorioak izaten ditu. Hortik akordio politikoak beharrezkoak dira eta nik uste dut sortuko direla batzuk".

Baloreak berreskuratze horretan heziketak garrantzia daukala dio: "heziketa planteatzen dudanean zentzu za-

KAMIXETA ESTANPAZIOA
FOTOKOPIAK KOLORETAN
© 943 02 73 58 Faxa: 943 02 79 39
San Inazio, 5 BEASAIN

KONTSULTORIO
MEDIKU-KIRURGIKOA
Goierritarrentzako mediku zerbitzu espezializatuak
Ordua eskatzeko tfnoa: 943 08 55 60 Faxa: 943 08 55 61
Nafarroa Etorbidea, 25 - 2. **BEASAIN**

ea n, inoiz ez dadila

balean planteatzen dut. Familia, laguntaldeak eta hezkuntza sartzen ditut. Zerbait gaixo dago gure gizartean, gazte kopuru batek sinisten badu zilegia dela, beste pertsona batzuei bizitza kentzea, politikoki modu batera edo bestera pentsatzen dutelako”.


Hego Afrikan apartheidekin amaitu zutenean egin zuten ariketa proposatzen du Elorzak Euskal Herrian. “Trantzizioan apartheidia apurtzeko, Egiaren komisioa osatu zuten, Desmond Tutu buru zuela. Izugarritzko katarsia suposatu zuen. Zeren, azken batean, alfonbra azpian dauden mamu eta zikin-keriak atera eta bertan airea sartzea da helburua. Hemen ere izugarritzko beharra dago antzeko zerbait egiteko. Alde batetik izugarritzko berrin-

dartze etikoa egin behar dugu eta prest egon behar gara armairuan daukagun guztia ateratzeko. Hori nola ez, guztion errekonozimendua edukiko lukeen pertsona batek lideratu beharko luke. Hego Afrikako Batzorde hartan apartheidaren egindako miseriak, torturatzailerak azaldu ziren, baina baita ere beste aldeko kasu batzuek, hilketak... Ariketa hori beharrezkoa izan zen, beste fase berri batean hasteko. Eta hemen hor daude: ETaren aldetik egindako pilo bat, bestelakoak, GALen izenekoak, torturak... Hor katarsi bat egiteko behar-beharrezkoa da, alfonbrak kanpora atera eta egia atera dadila, eta has gaitezela beste gauza garbi batean, baina onar dezagula beste balore berri batzuekin edo oinarritzkoekin hastea”.

“Euskadiren etorkizunerako proiektu propioa atera behar du alderdi sozialistak kongresutik”

Martxoan egingo du Euskadiko alderdi sozialistak kongresua. Hautagaien eta korronteen dantza hasi da eta kongresua gerturatzeko ari den heinean kaleratuko dira. “Hiru korronte egongo direla garbi dago: Redondoren inguruan bildu zen sektorea, Bizkaiko eta Gipuzkoako Exekutibak adostutakoa, eta Sozialismo Berriaren izenean azaldutakoa. Ni azken honetan nago”, zehaztu du Elorzak. “Kongresua, prozesua hasi genuenean baino hobeto bukatzea espero dut”, gaineratu du. “Euskadiren etorkizunerako proiektu propioa atera behar du alderdi sozialistak eta kongresu honen erronka nagusia hori dela esango nuke. Hori egiteko gai baldin bagara, alderdi sozialista ondo joango da. Estrategia baldin bada bataren edo bestearen morroi izatea, nik uste alderdi sozialista beheraka joango dela nabarmen”.

Euskadi, herri bezala, abangoardia izatea amets



1957ko ekainaren 15ean Idiazabalen jaioa. Gaur egun Beasainen bizi da. 2. legegintzaldia du Beasaingo zinegotzia karguan. Politikan nola sartu zen galdetu diegu: “Lanean Coprecin, gaur egun Orkli denean, hasi nintzen LABen afiliatu nintzen. Trantsizio garaia zen. EIA

sortu zen eta gero Euskadiko Ezkerra. Biek bat egin zutenetik hor nabil gaur arte. Tarte horretan, 10 urtean Goierritik kanpo bizi izan nintzen, Bartzelonan eta Nikaraguan. Euskadiko Ezkerra bereiztu zenean PSEekin konbergentzia egitearen alde azaldu nintzen eta gaur arte”.

Jendeak hala uste badu ere, ez da politikatik bizi. Enpresa Konsultora txiki bat dauka. Ikasketaz antropologoa da. Deustuko Unibertsitatean doktoratu ikasketak egin zituen soziologian, baina tesia aurkeztu gabe dauka oraindik. Beti enpresa munduarekin lotua egon da eta ikastaroak eginda dauzka arlo honetan. Kooperatibetan lan egindakoa.

Ametsetan jarri dugu azkenik, nolako Euskal Herria nahi duen eta zein amets duen jakiteko. “Amestea libre da, eta momentu batzutan beharrezkoak ere bai. Behin baino gehiagotan pentsatzen dut, frankismoa bukatzeaz zegoela eta dinamika guzti haiek ireki zirenean, ez genuela imajinatzen gaur egun daukagun Euskadirik. Ezta ere ez genuen imajinatzen Autonomia mailan gauden lekuraino iritsiko ginenik. Gaur egun mugarik ez dago ia, beste aldera arazorik gabe joaten gara eta urte haietan izugarritzko abentura izaten zen. Gauza asko, asko zabaldu dira baina egia esan, orokorrean, euskaldunen bihotza gaixotuta dagoela esango nuke. Euskaldunok gure gaixotasun guztiez gain izugarritzko potentzialitatea ere badugu. Gai gara zenbait kasutan munduko abangoardia izateko ere. Arrasateko kooperatibena hor dago. Nire ametsa da, Euskadi abangoardia izatea herri bezala, sektore oso konkretutan. Langile eta enpresa harremanetan mundu guztiko abangoardia izan gaitezke, gizarte-ongizate arloan dugun gure egiteko modua ere eredutzat bihurtu dezakegu mundu guztian. Kulturalki, euskara zehazki, hain endogamikoa ez izatea gustatuko litzaidake. Egun guztia euskararen arazoez hitz egiten aritu beharrean, euskal munduan dabilen jendeaz gain, euskara mundura irekitzea. Euskal nortasuna zabaltzea, pertsona eta kultura bezala irekita indartu egiten baita”.

Argitarapen honen edizioa laguntzaile:

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

gizarte ekintza



Lazkao

Jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa

San Prudentzio jaiak gertatzen ari dira eta dagoeneko hasiak dira prestatze lanak. San Prudentzio jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketako oinarriak kalean dira dagoeneko.

Edonork har dezake parte lehiaketan, inolako mugarik gabe.

Lanak koloretan izan beharko dira eta edozein eratarik eginak: collagea, pintura, eta abar. Lanen neurriak honako hauek izango dira: 45 x 65

zm. edo neurri proportzionala.

'2002ko San Prudentzio jaiak, Lazkaon, apirilaren 26tik maiatzaren 1era. Lazkaomendin, maiatzak 4 eta 5' hitzak azaldu behar dira lanean idatziak.

200 euroko saria emango du Udalak. Dena den, saria eman gabe gera daiteke, epaimahaiaren iritziz aurkeztutako lanek gutxieneko kalitate maila ez badute.

Lanak udaletxean aurkez-

Jose Antonio Dopazo Lazkaoko PSE-EEko zinegotzia auto istripuan hil da

Otsailaren 2an, Irura parean, Jose Antonio Dopazo, Lazkaoko PSE-EEko zinegotzi ohia auto istripuan hil zen. Urtarrilaren 31n dimisioa aurkeztu zuen Dopazok.

'Konponbide Demokratikoa'-ren aurkezpena otsailaren 27an

Batasunak 'Konponbide Demokratikoa' txostenaren aurkezpen hitzaldia egingo du, otsailaren 27an, arratsaldeko 7etan, Kultur etxean. Hitzaldia irekia izango da eta herritar guztiak gonbidatu nahi ditu Batasunak.

tu beharko dira, martxoaren 22a baino lehen. Lanak egilea nor den adierazi dezakeen inolako daturik gabe aurkeztuko dira. Honekin batera, kartazal itxi batean partehartzailearen datu pertsonalak eta Nortasun Agiriaren kopia izan beharko dira.

Epaimahaiak martxoaren 27a baino lehen emango du bere erabakia. Saritutako lana Udaltzaingaren esku geldituko da, eta argitaratu, ezagutarazi eta abarretarako eskubide guztiak berak izango ditu.



Lierniko ermitako obrak

Bista ikusgarriak dituen Mutiloko auzo honetan kokatuta dago, hainbat eta hainbat bisitari dituen Lierniko Ama Birjinaren ermita. Berrikuntza lan batzuk egiten ari dira

azkenaldi honetan, pipiaren kontrako tratamendua ematen ari dira aulkiei eta koruko zoruari. Aldareko zoruare berritzekotan dira.



Santa Ageda

Argazkian, Santa Ageda egunean, Mutiloko San Pedro jaietarako dirulaguntza lortzeko, baserriz baserri kantari ibilitako gazte taldea.

Aingeru Guardako eguna

Urteroko ohiturari eutsiz aurtengoan ere Aingeru Guardako egunean, martxoaren 1ean, meza ospatuko da Lierniko ermitan, goizeko 11etan.

Festetako bilera

San Pedroetarako ere gero eta gutxiago falta da. Festak antolatzen diren bilera irekia antolatu du Festa Batzordeak, martxoaren 2rako, Kultur etxean. Aipatutako bilera iluntzeko 10etan egingo da.

Iñaki Ugalde



1909 ezkerotik Herriaren zerbitzuan

Euskal kultura eta hizkuntzan sustraitua:

- ☐ "BAI EUSKARARI" akordioan parte hartzailea
- ☐ Euskal Herriko jaiak eta tradizioak bermatuz



La Salletar estiloa:

- ☒ Kristau eskola
- ☒ Frogaturiko pedagogi esperientzia
- ☒ Berritzaileak:
 - Ingelesa 4 urtetatik aurrera
 - ULISES, OPTIMIS, CREA, IDEAL, FENIX...

Hautzaindegi zerbitzua
Jangela
Eskola garraioa

☎ 943 88 01 39



Eguneroko ekinean



SAN BENITO IKASTOLA

Euskadi enparantza, z/g

E-mail: lazkao@ikastola.net

Tfnoa.: 943 88 08 00 - Faxe: 943 88 18 16

20210 LAZKAO

www.sanbenitoikastola.com

HAURTZAINDEGIA




BATXILERGOAK

GARUNEN SUSPERTZE
GOIZTIARRA




PSIKOMOTRIZITATE
GELA



JANTOKIA

HAUR HEZKUNTZA



INFORMATIKA ESKOLA



GARRAIOA

LEHEN HEZKUNTZA



IRRATI TALERRA



LUDOTEKA

DIRH



LABORATEGIAK



HIZKUNTZA ESKOLA



INGELES UDALEKUAK



ANTZERKI TALERRA



TRIKITWA ESKOLA



KIROLAK



GURASO ESKOLA



Imagina al dezakezu Goierri... GOIERRITARRARik gabe?

Goierritarraren posta gastua ordaintzeko laguntza

Goierri bizi zaretenok
borondatez betetzeko txartela



hilean **euro 1**

Goierritarra
etxean jasotzeko

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria:

Telefona: **Adina:** **NAN:**

Kontu zenbakia (20 digitu):

Goierritarraren harpidedun naiz
eta hala izaten jarraitu nahi dut ☐

Ez naiz Goierritarraren harpide
eta hemendik aurrera izan nahi dut ☐

Bidali txartel hau helbide honetara: Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia
eta posta gastuak ordaintzeko urtean 12 euro (2.000 pezeta inguru)
kobratuko dizkizugu zure kontu korrontetik



Aurreku txapelketa Herri Antzokian

Dantza protagonista izango da igande honetan. Goizeko 11etatik aurrera aurreku txapelketa jokatu da Herri Antzokian eta bertan besteak beste hor arituko dira Urdaneta eta Jakintza dantza talde-etako gaztetxoak.

Orain artean urritik hasita hilabetero jokatu da dantza txapelketaren bat (Azkoitia, Legazpi, Altsasu, Elgoibar) eta oraingoan Ordiziari ego-kitu zaio berau antolatzea. Ordiziako Udalak, euskal dantzaren biltzarra, Urdaneta Dantza Taldea eta gurasoen laguntzaz antolatu da otsailaren 24rako lehiaketa. Ondoren Beasain eta Oiartzunen jokatu dira hurrengo txapelketak. Finala maiatzaren 18an izango da Erreterian.

Bi maila daude, 7-11 urte bitartekoena bata eta 12-16koena bestea. Gazte bakoitzak lau txapelketatan hartu behar du parte eta bertan bildutako puntuen arabera 12 finalera pasako dira. Urdaneta dantza taldetik 7-11 urte bitartekoena mailan Jon Arizmendi, Asier Unanue, Raul Lopez, Asier Aseginolaza, Mikel Zabalegi eta Jon Aramendi arituko dira. Jakintza dantza taldetik, aldiz, Unai Ariztimuño, Mikel Urreta-

goiena eta Asier Otegi. Hauek egin beharreko lana, berriz, honakoa: alpargata eta agurra. 12-16 urte bitartekoena artean Urdanetatik Eneko Txikirrin eta Aitor Insaustik egingo dute dantza. Hauek alpargata, agurra eta desafioa dantzatu beharko dituzte, esan bezala otsailaren 24an, igandea, goizeko 11etatik aurrera Herri Antzokian. (argazkian Urdaneta dantza taldeko dantzariak iaz Ordizian jokatutako lehiaketaren ondoren).



133 bikote Argi Berriko mus txapelketan

Antonio Carrion eta Ramon Viturro donostiarrak izan ziren Argi Berri Elkartek antolatutako XXV. Mus Txapelketa Azkarreko irabazleak. 133 bikotek hartu zuten parte aipatu txapelketan, inoiz baino gehiagok (44 ordizia-



Hegats igeriketako II. Nazioarteko proba

Iazko edizioaren arrakastaren aurrean Hegats Igeriketako II. Nazioarteko Proba antolatu dute Ordizia Kirol Elkarteak Urpekoak taldekoek. Berau martxoaren 2an jokatu da Majori Kiroldegiko igerilekuan eta bertan izango dira gaur egun inguruan dauden igerilaririk onentsuenak. 120ren bat igerilari izango dira guztira, frantziar eta espainiar estatuko igerilariak eta Espainiako talderik onenak tarteko.

Proba egun osoan zehar jokatu da, goizean 9etatik aurrera eta arratsaldean 4,30etatik aurrera. Goizean honako probak: 50 apnea, 800 urgainea, 100 urgainea eta 400 eskafandra. Arratsaldean, berriz, 50 urgainea, 400 urgainea, 100 eskafandra eta 4x100 erreleboa urgainea. Sariak ematerako garaian kontuan hartuko da "alemaniar taula", honela hiru gizonetako zein emakumetako onenek jasoko dituzte sariak.

Neurketak jokoa

XXIII. Lagunarteko Futbol Txapelketako lehen partidak jokatu dira dagoeneko. Usunbilla eta Irrintzi talde antolatzaileek 3 multzotan banatu dituzte izena emandako 12 taldeak. A multzoan Urbitarte Sagardotegia, Vicuña Sport, Wiskas eta Irrintzi, B multzoan E.R.Matxain Ileapaindegia, Tximista Sagardotegia, Usunbilla eta Ferrocarril Oeste eta C multzoan Badago, Reaggy Boy's, Plying eta Bustunmira arituko dira. Berauen artean joatu ondoren multzo bakoitzeko lehen biek D multzoa osatuko dute eta gainontzekoek E multzoa. Ligaska moduan arituta finalaurdenak nork jokatu duten erabakiko da hemen-dik aurrera.

Aitor Calvillo

rrak), horrek irabazleei meritu handiagoa emanez. Arratsalde guztian musean aritu ondoren finalean Zumaiako bikote gaztea aurrez aurre, Iñaki eta Celes Luján anaiak. Larri-larri baina donostiarrak nagusi eta bide batez 900 euro patrikaratzea lortu zutenak. Lehenengo 8 bikoteentzat izan ziren sariak.

Oraingoan ere Euskal Herri guztiko muslarriak inguratu ziren Bustuntza auzoko Elkartera. Lehen partidak Urdaneta Herri Eskolako jangelan jokatu ziren, modu eroso batean gainera eta giro atsegina nagusi izan zen. Aipatu sariet gain arkume eta antxumeen zozketa ere egin zen eta jarraian datozen zenbakien jabe-dunek berauek eramango dituzte. Arkumeak: 1.413, 4.810, 2.046, 1.558 eta 3.946. Antxumeak: 2.436, 4.529, 4.646, 4.154 eta 4.052. 943-888074 telefono zenbakira deitu edota agertu Argi Berri Elkartera (Gipuzkoa Kalea 15, Ordizia). Argazkian irabazleak finaliste-kin batera saria jasotzerako garaian.



Erlezain eguna eta Gipuzkoako IV. ezti lehiaketa arrakastatsua

Erlezain eguna eta Gipuzkoako IV. ezti lehiaketa igandean, otsailaren 17an, ospatu ziren Zegaman.

Ezti lehiaketa

Ezti lehiaketari dagokionean, Lorebarkarrean Segurako Eugenio Elorza eta Milalorean Añorgako Aitor Basurto suertatu ziren. Ezti lehiaketara 21 ezti aurkeztu ziren, hauek bailaraka egindako txapelketatan saria jasotakoak ziren.

Eztiz eginiko postre lehiaketa

Bestalde, eztiz eginiko Lehen Gozogintza Lehiaketan, Ayala Sukaldaritza Eskolako Pamela Gonzalez eta Jeam Bertrand-ek eraman zuten lehen saria eta Daniel Higerak, hau ere Ayala Sukaldaritza Esko-

lakoak, eraman zuen bigarren saria. Hirugarren saria berriz, Segurako Ageda Zeberioek jasotzen zuen sagar tarta bat aurkeztuz. Guztira 16 postre aurkeztu ziren lehiaketara, bertan epaimahai lanetan Jose Mari Gorrotxategi, Luis Mokoroa eta Arantxa Gonzalez aritu ziren.

Giro ederra

Goiza betilun etorri zitzaigun Zegama aldera, lausoa eta hotza izan zirelarik nagusi eguerdi artean. Hala eta guztiz ere, udal pilotalekuan nahiz udal arkupeetan jendetza ugari bildu zen erlegintzak dituen lan eta misterioak ezagutu asmoz. Aipagarria izan zen, berrogei bat erlezainek Zegamako kaleetan zehar kiroldegira egin zuten du-

Bertso jaialdia, zortzi finalistekin

Kasino Elkarte antolaturik eta Zegamako Udala, Kultur Etxeak, nahiz herriko hainbat babesleren laguntzarekin bihar larunbata, otsailak 23, gaueko 10,30etan bertso jaialdi paregabea izango dugu Zegamako Udal kiroldegian. Bertan azken txapelketako 8 finalistak izango dira eta berriro ere aurrez aurre ikusteko aukera izango dugu bertsozaleok. Hona hemen protagonisten izenak: Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Aitor Mendiluze, Jon Maia, Jexux Mari Irazu, Unai Iturriaga, Igor Elortza eta Sustrai Colina. Gai jartzailea: Laxaro Azkune. Oharra: Berogailua jarriko dela adierazi dute antolakuntzatik.

Bideo emanaldia

Igandean, otsailak 24, arratsaldeko 17:00etan Kultur etxean "El Dorado" filma botako dute Guraso Elkartekoek.

Zeasma: Biharko Zegama

Datorren otsailaren 25ean, iluntzeko 20:00etan, Zeasma: Biharko Zegamaren bilera izango da Kultur Etxean.



rrunba saioa, esan, hau, erla-kumeari deitzeko erlezainek ateratzen duten soinu bat dela eta igandean Zegaman, jendaurrean irudikatu zutela jendeak ikus zezan. Haur nahiz helduek erleak bizirik ikusteko aukera izan zuten beirazko kaxa batean, panal eta guzti sarturik ekarri baitzituzten erlezainek eta Kaiku etxearen laguntzaz eztiz gozatutako ehunka yogurth banatu ziren bertaratuen artean hala nola Zegamako okindegiak ipini-

tako eztiz igurtzitako tostadak ere.

Eguerdian, sari banaketaren aurretik Jose Mari Zendoia erlezaina omendu zen, bere esanetan 60 urte omen daramatza ofizio honetan. Bejondeiola!

Eguna borobiltzeko 100 erlezain bildu ziren Ostatuko jangelan bazkari baten bueltan bertsolariak lagun

Edurne Albizu



Jeronimoeneko bidegurutzeari agur

Jeronimorenean (Jeolimo-nen), Segura eta Idiazabalgo bideak banatzen dituen bidegurutzea kendu eta haren ordez errotonda bat egiteko lanak martxan daude. Gipuzkoako Foru Aldundia ari da lanak egiten. Errotonda berriak, Beasaingo norabidean, eskuin aldera dagoen zelaia hartuko du oso osorik. Bide berria kamioi handien joan etorrirako prestatuta egongo da. Gainera, bidegurutze horretan gertatzen diren istripu kopurua murriztu egingo da.

Errotonda egiteko lanekin batera, orain Lima fabrikarai-

no iristen den espaloia, behe-rago dagoen autobus geltokiraino luzatuko du Udalak. Zati berri horretan zuntz optikoa bideratu ahal izateko hodiak jarriko ditu Euskaltelek. Udaleko iturrien arabera, azpiegitura mailan Idiazabal Beasainekin lotze aldera emango da urrats hori.

Bide berria egiteko lanek irauten duten bitartean herri sarrera eta irteeran traba ugari egotea espero da. Dena den, Benta Txikitik herrira sartu eta irteteko modua badagoela ere kontuan izan.

Laburrean

- SOS Afrika elkarteak antolatuta, Parrokia arropa bilketa egiten ari da, Afrikako hainbat herrialdetara bidaltzeko. Jantziak eta oinetakoak eraman litezke. Plastikozko poltsa handietan bildu eta ondo lotuta, Apaiz etxean utzi behar dira otsailaren 26rako.
- Udalbatzak, Udaleraiko administrari laguntzaile eta kirol dinamizatzaile lanpostua betetzeko lehiaketa publikoa egitea onartu du.
- Martxoaren bata bitartean dago zabalik Herri Eskolan matrikula egiteko epea. Goizetan 9etatik 10etara eta arratsaldean 14.30etatik 15.30etara.
- Jubilatuen Elkartek antolatuta, martxoaren 5ean "Otsoak eta hartzak gure mendietan XX. mendean" hitzaldia eskainiko du Jose Kruz Aranburuk. Jubilatuen Elkartearen 19.00etan.

Odol emaleak

Asteazkenean, otsailak 20, izan zen aurten, lehendabizikoz, herrian odola emateko aukera. Urteroko moduan, hiru bider izango da odola emateko aukera, hurrena, ekainaren 18an eta urriaren 2an.

Iaz 198 odol poltsa bildu ziren Idiazabalen. Herriko odol emaleen taldekoen ustez "*herritarrek nahiko ondo erantzuten dute, baina premia handia da eta besoa luzatzen jarraitu beharra dago*". Aurrekoetan bezala gazteei dei berezia egiten zaie "*hain gutxi eskatzen duen ekintza honetan parte hartu dezaten*".

Odola 25 aldiz eman dutelako, Mari Kamen Goiburuk eta Teodora Camarerok oroigarria eta diploma jaso dituzte.

Bake epailea

Denbora gutxi barru hutsik geratuko dira Bake Epaile eta haren ordezkoaren postuak. Horiek betetzeko deialdia egin du Udalak. Interesa dutenek martxoaren 15 baino lehen eman beharko dute izena Udaletxean bulego orduetan. Idiazabalen bizitzea eta adinez nagusi izatea eskatzen da.

Autowag, s.a.



☎ 943 888 254 943 888 266

Faxa: 943 888 105


N-1 errepeidea, 419 Km

BEASAIN

GERTU

aholkularitza

**TXEkin programarako
homologatutako erakundea**



Kale Nagusia, 2
BEASAIN
Telf: 943 16 21 92



Martxoaren 3an Rallyak laugarren edizioa

Datorren martxoaren 3an egingo da Gabiriako laugarren rallysprinta. Lasterketa honek emango dio hasiera Euskadiko automobilismo denboraldiari, eta urtero arreta berezia erakartzea lortzen du Kamiño-zarrean lehiatzen den proba honek, berrikuntzak eta aldaketak lehen aldiz ikusteko aukera izaten baita. Izenematea datorren astelehenera arte burutu daitekeenez oraindik ez dago partehartzaileen lista ofizialik, baina modalitateko piloto onentsuenak bertan izango direla aurreratu dute antolatzaileek.

Probak betiko egitura bera izango du oraingo edizio honetan ere. Korta jatetxetik Motxorrora bi joan-etorri kronometratu egingo dira, banan-banan eta minutuko tartearekin autoak aterata. Arratsaldeko hiruretan irten-go da lehenengoa, baina errepidea goizean goizetik moztuko da.

Gazteen pelota txapelketa

Larunbat honetan hasiko da herriko pelota eskolak antolatzen duen txapelketa. Bertako neska-mutikoak ezezik

Osinalde elkarteko urteko batzarra

Osinalde Elkartek bihar larunbata, hilak 23, ospatuko du urteko batzar nagusia. Bertan iazko urteak utzitako gora-behera zenbait jorratuko dira, nola diru-kontuak, hala gizartelanak nahiz kulturetzako ekimenen azterketa. Juntako zazpi kideetatik lauren lekua berritzea ere tokatzen denez, bozketak egingo da aurrez bazkide guztiei helarazi zaien zerrendan oinarrituta. Hori guztia dela eta, gida batzordeak elkarteko 105 bazkideei dei egiten die bilkura honetara azal daitezten, Osinalde elkartean bertan izango dena. Iluntzeko 8,30etan egingo da lehendabiziko deialdia eta 9etan bigarrena.

Bertso sariketa martxoan

Zehazturik daude jada aurtengo Osinalde Bertso Sariketarako baliagarriak izango diren sailkatze saioak non eta noiz ospatuko diren. Martxoko hiru larunbatetan, beste horrenbeste elkartetan, jokatu dute hemezortzi bertsolarik Gabiriarako pasea, Aztiriko Aztiri-bat sozidadean martxoaren 9an, Ordiziko Argi-berrin hilaren 16an eta Idiazabalgo Axari elkartean 23an. Bertso-saio guztien aurretik afariak egingo dira, eta arratseko 8,30etan dago horretarako ordua jarrita. Finala, berriaz, apirilaren 6an. Hurrengo Goierritarran zehaztuko dugu sari bakoitzerako zein bertsolari dauden izendatuta.

Ormaiztegi, Zumarraga eta Urretxuko pelotariak ere parte hartzen dute, hogeita hamar bat lagun bilduz. Kanporaketa fasea izango da lehen-

dabizi, eta apirilean, kultur astearen baitan jokatuko dira maila bakoitzeko finalak.

Aimar Maiz



Miel Antonio Sukiak 100 urte

Saturdiko Urreta Goena base-riko Miel Antonio Sukiak 100 urte beteko ditu igandean, hilaren 24an. Aztiako Eulali Garmendia iaz hil zen 100 urterekin, eta harrezkero, Miel Antonio da adinez herriko biztanlerik zaharrena. Artzain eta nekazari izana lanbidez —estrinako gazta zazpi urte zituela egin omen zuen—, txiki-txikitatik Euskal Herri-

ko hainbat txokotan ibilia ere bada artzain lanetan. Ardiki Eguneke azken edizioetan ere ikusi ahal izan dugu: artilea lantzen, gazta egiten... Hala, lerro hauen bitartez, urtebetetze egun zoriontsu eta lasaia igarotzea opa diogu Miel Antoniori. Bejondeizula!

*Iñaki Gurrutxaga
Saroi Jauregi*

XVII. mus txapelketa azkarra

Urtero bezala mus txapelketa azkarra izango da herrian, Zubiburu elkarteak antolatuta. Mus saioa bihar arratsaldeko 4,30etan izango da elkartean bertan. Izena emateko epea, ordea, 16:15 arte egongo da zabalik eta bikoteak 22 euro ordainduko beharko ditu. Jokoak lau erregera, sei hamarrekora eta hiru ustelera izango dira. Sariak ere ez dira nolanahikoak: irabazleak 780 euro, txapela eta trofeoak eramango ditu, bigarrenak 420 euro, hirugarrenak 210 euro, laugarrenak 120 euro eta hauen atzetik gelditzen diren hurrengo lau bikoteak 60na euro poltsikoratuko dituzte.

Arrate Leunda ipuin kontalaria

Ordiziako Arrate Leunda ipuin kontalariaren saioa izango da datorren ostegunean, hilaren 28an, arratsaldeko 18,15etan Kultur etxean.

Txalaparta sakontze mailako ikastaroa

Oreka TX taldeko Arkaitz Martinez maisu hartuta, txalaparta jotzen dakitenei zuzenduriko ikastaroa da honakoa. Apirilean izango da ikastaroa eta izena emateko epea hilaren 28an amaitzen da.



Inauterietako jaialdi arrakastatsua

Azken urteotan bezala, aurtan ere inauterien berri emateaz Joxemiel Barandiaran eskola-ko ikasle eta irakasleak arduratu ziren. "Furra furra" doinu artean egin zieten harrera Herri Antzokira bildu ziren herritarrei eta hurrengo egunean gonbidatu zituzten Gabiri eta Zegamako ikasle eta irakasleei, otsailaren 7 eta 8ko arratsalde eta goizean. Egitarau bete-beteaz eta festa giroaz gozatzeko aukera izan zuten, dudarik gabe bertara joan zirenek. Kanta, dantza, antzerki, musika... faltarik ez zen izan han. Gure partetik, urte askotan horrelaxe gure inauteriak animatzen jarrai dezazuen animatzea baino ez zaigu geratzen. Animo bada eta, urte askotarako!

Yana Curi (urre beltza) argazki erakusketa

Azken zenbakian aurreratzen genizuen eran, Yana Curi argazki erakusketa ikusgai da Udaletxeko ganbaran datarren igandera arte. Bulegoko orduetan Udaletxera inguratzen zaretenok, Ekuadorreko

Amazoniako herri txikietan, petrolioaren esplotazioak, usiak etak eragiten dituen ondorioen inguruan egindako argazki eder bezain hunkigarriak ikusteko aukera izango duzue. Otsailaren 24rte irekita egongo den erakusketa hau, Gipuzkoako Medicus Mundi elkarteak Hego Amerikako herrialde horretan egindako ikerketa baten emaitza da. Ataungo Udala Medicus Mundi Gipuzkoaren laguntzaileetako bat da. Elkarrekin honek hirugarren munduko herri behartsuei laguntzen egiten du lan. Gainera, bide batez, gogorarazi, herritar bat badugula herrialde horretara boluntario lanera joa-

Atsedeen tokiko tabernarako 'jabe' bila

Atsedeen-Toki elkartearen tabernaren ardura hartuko duen arduradun bat bilatzeko deialdi berria egin du Udalak. Azken arduradunek taberna utzi zutenetik, zerbitzu hori lehiaketa bidez adjudikatzeko egiten duen bigarren deialdia da. Gaurdaino eskaintako zerbitzuari eusteko helburuarekin, baldintzak hobetzea erabaki du Udalak. Hala nola:

- Ordainketarik ez. Tabernako ardura hartzen duenak Udalari ez dio inolako ordainketarik egin beharko alokairuagatik.
- Gastuak Udalaren gain. Lokalaren mantentze gastuak, argia eta ura, Udalak ordainduko ditu.
- Jai egunak. Astean egun batez eta, abuztuko hilabete osoan taberna isteko aukera izango du arduradunak.

Proposamenak aurkezteko epea martxoaren 4ko eguerdiko ordu bata arte irekita egongo da. Informazio gehiago behar izan ez gero, Udaletxera zuzendu besterik ez du interesatuak.

'Mongolia: Estepako arnasa'

Joxe Ramon Agirre 'Marron'-ek diaporama berria aurkeztu du: Mongolia: Estepako arnasa. "Herrialdearen mendebaldean, Iparrean Errusiarekin eta Hegoan Txinarekin bereizten dituen konoan, Tavanbogd mendiak biltzen dituen Altai izeneko mendilerroa dago. Bertako mendiek 4.000 metrotik gorako garaiera hartzen dute. Horietatik glaziar handiak zintzilikatzen dira, besteak beste, Alexander glaziarra. Bertan, gailur liluragarri horietara zenbait igoera egin nituen bitartean, nomada kazajoekin elkarbizitzen egon nintzen, Tsatan familiekin edo iparrean bizi diren elur-orein artzainekin egin nuen moduan. Irudiek beren baitan duten indarra nahikoa da errealtate horretara eramane zaitzaten; baina osagarri moduan, lokuzio batez eta hango musika herrikoiaz lagunduta emango dira".

na, Rakei Kaiero hain zuzen. Elkarrekin egiten duten lanaren berri izan nahi baduzue, oraintxe duzue aukera ederra, beraz.

'Gladiator' filma San Gregorion

Bihar ostirala, otsailak 22,

"Gladiator" pelikula ospetsu bezain arrakastatsua ikusteko aukera izango da San Gregorion Kultur Elkargunean, gaueko 9,30etan. Artadi elkartearen ekimenez, bertakoen asmoa da hileko azken ostiralero filma bat eskaintzea-rena. Aipatu pelikula ez da ordea, Artadikoek eskaintzen duten lehen filma. Asier Auzmendi, ekimenaren bultzatzaileak adierazi digunez, joan den hilean "El Show de Truman" bota zuten. Dudarik ez da, kalitatearen alde apostu egin dutela eta guztion esku dago horrek horrela jarrai dezan. Saioa gainera doan da.

Agurtzane Bikuña

labur-labur

- **Iñaxito Aierberen bigarren urteurrena.** Bere senitarteko eta lagunek bere omenez egin zuten ekitaldiaren bitartez, ospatu zuten bere heriotzaren bigarren urteurrena San Gregorion joan den igandean.
- **Hildakoak:** Aministrazioko Eugeni Zurutuza, Berraingo Juana Auzmendi eta lan istripuz hil zen Dornaingo Tomas Insausti gaztea izan dira herrian izan ditugun heriotzak azken bi asteotan. Doluminak sendiei.

Emakumezko langilearen eguna

Martxoaren 8a, emakume langilearen eguna ospatzeko asmoz, Emakumezkoen As- tea antolatu du Asmube El- karteak. Hitzaldiak, irtenal- diak, mahainguruak eta beste hainbat ekitaldi prestatu ditu martxoaren 1etik 8ra.

● **Martxoak 1, ostirala:** El- kartearen egindako pintura eta eskulanak ikusgai jarriko di- tuzte Usurbe Antzokiko era- kusketa aretoan 19:30etik au- rrrera.

● **Martxoak 4, astelehena:** 'Los Puentes de Madison' fil- ma emanaldia izango da arra- tsaldeko 5etan Asmube El- kartearen. Oskarbi Gabineteko Yolanda Ferverok zuzenduko du bideo forum hau.

● **Martxoak 5, asteartea:** Bilkura poetiko-musikala egingo dute Osinbeltz kafete- gian, 17:30ean. Narratzaile eta gitarrista batez osatua da- goen Getxoko Sonikete elkar-

te musikal-artistiko batek es- kainiko du emanaldia.

● **Martxoak 6, asteazke- nea:** Danzaluzen aurkezpena egingo dute Udaletxeko are- toan 18:30ean. Mugimendu, erritmo, kolore, poesia, musi- ka eta irudimenaren bitartez asmatu eta eraldatzeko artea ikusi ahal izango da.

● **Martxoak 7, osteguna:** Txillida-Lekura irteera kultu- rala egingo dute goizean, on- doren Astigarragako Akelena sagardotegian bazkaltzeko.

● **Martxoak 8, ostirala:** Afaria egingo dute, Salbatore Jatetxean. Oparien zozketa eta musika ere izango dute. Autobus zerbitzua jarriko du- te.

Afarira eta irteera kultu- lera joan nahi duzenok au- rrez izena eman behar duzue Asmubek Urbi-etxean duen egoitzan.

Nekane altuna

Gurutze Gorriaren ikastaroak

Bi ikastaro antolatu ditu. Oinarrizko masajea erakutsiko dute ikastaro batean. 30 orduko iraupena izango du eta gehienez ere 15 ikasle onartuko dira. Beste ikastaroa, Osakidetzako oposa- ketetara aurkeztu behar diren erizaintza laguntzaileei presta- tzen laguntzeko izango da. Informazio gehiago nahi duenak 943 162150 telefono zenbakira dei dezake.

Andeetako artisautza

Beasaingo Udaleko Gizarte Ongizate eta Kultura sailak anto- latuta, Usurbe Antzokian ikusgai izango da igandea bitarte, Coprodeli Fundazioaren Artisautza Andinoaren erakusketa. Merkataritza zuzena izango da eta artisautza produktuak eros- teko aukera izango da. Coprodeli Fundazioak, Callao eta Li- mako baztertutako biztanleriarekin lan egiten du, behartsuenei laguntzeko eta beren garapenean elkarlanean aritzeko. Ostira- lean, 19:00etatik 21:00etara eta jaiegunetan ordu honez gain, eguerdiko 12etatik 2etara.

Zirkulazio desbideratzeak

Ia urtebete bada Beasainen ur saneamendu lanak hasi zituzte- la eta oraindik ere lan horretan jarraitzen dute. Etxe eta in- dustrietako isurkin likidoak biltzeko hodiak ari dira sartzen lur azpian. Europar Komunitateak ingurugiro garbiagoren in- guruan duen araudi berriak egunean egotea behartzen du eta era honetan, ibaiak garbitzearekin batera, ingurunea ere be- rreskurtzeko asmoa dago. Kontzientziazioa eta elkarlana es- katu zitzaigun herritarroi lan hauek hasi zituztenean, izan ere jakina da dagoeneko jasaten ari garen zirkulazio mozketak, desbideraketak eta aparkatzeko arazoak. Orain gutxi beste al- daketa bat egin dute zirkulazioan. Iturrioz kalea irekia dago bi norabidetan, Urbietako zubitik, Porteriaraino. Bidea probisio- nalki asfaltatu dute, udaran baitago erabat amaitzeko asmoa. Aldaketa jasan duten beste kaleak honokoak dira. Beasaina sartu eta irteteko kaleak, Errekarte eta Foru izango dira, Loi- nazpe ikastetxetik, Foru kaleak Zapatarri kalearekin egiten duen gurutz bideraino, hemendik Nabarro Larreategi eta Na- farroa Etorbidera sartzen garelarik. Igartza kaletik beraz ez da autorik ibiliko, kiroldegitik hasi eta Florentzio Axpe bide gu- rutzeraino. Bide hau aparkatzeko erabiliko da.

Bikote homosexualen arteko ezkontzak

Orain gutxi onartu zen Beasaingo Udal Bilkuran, bikote ho- mosexualen arteko ezkontzak Udaletxean egitea. Orain bi ur- te, Udalak lehen pausuak eman zituen izatezko bikoteen es- kubide berdintasunak bermatzeko, bai bikote heterosexualena eta baita homosexualena ere. Gehitu eta Hegoak Elkarteek aurkeztutako mozioari baieztuko botoa eman zioten, PNV-EA, EH eta PSE-EE-k. PP kontra agertu zen.

Beasain Futbol taldea aurrera Federazio kopan

Otsailaren 13an jokatu zuen Beasain futbol taldeak Federazio kopako bueltako partidua Real Sociedad B taldearen aurka Loinatz futbol zelaian. 5 eta 1-eko emaitzaz irabazi zuten, be- raz aurrera jarraituko dute torneo honetan.

Gaur ostirala, Barcelona B taldearen aurka daukan parti- dua TV2 telebistaz ikusi ahal izango da.

Jokatu dituen 25 partiduetatik 8 irabazi ditu, 7 berdindu eta 10 partidua galdu. 27 gol sartu dituzte beasaindarrek eta 43 sartu dizkiote. Sailkapenean 13 postuan dago.

Jabier Imazek 4 domina eskuratu ditu

Jabier Imaz beasaindarrak lau domina eskuratu ditu orain gu- txi Molinako eski estazioan jokaturako ezinduentzako XII. Pirineotako eski kopan. Urrezko domina lortu zuen erral- doian eta hiru zilarrezko, slalom-en, jaitsieran eta konbina- tuan.

Mendiko argazki lehiaketa

Argizpi Argazkizale Elkartek eta Aizkorri Mendizale Elkar- teak antolatutako III. Mendiko Argazki lehiaketara lanak aur- kezteko epea otsailaren 28an amaituko da.

Kultur astea martxoaren 4tik 10era

Martxoak 4, astelehena:

15:30ean: 'Sukaldaritza ekologikoa' ikastaroa, Arkupe elkartean.

Martxoak 5, asteartea:

18:30ean: 'Nerabezaroa aurrrera eramateko modu ezberdinak'. Hizlaria: Lurdes Otermin psikologoa. Hitzaldia guraso eta gazteei zuzendua da. Udal liburutegian.

Martxoak 6, asteazkena:

15:30ean: 'Sukaldaritza ekologikoa' ikastaroa, Arkupe elkartean.

19:00etan: Bio-eraikuntzari buruzko hitzaldia: 'Sostenuzko eraikintza, eraikuntza ekologikoa, energi kontsumo gutxi etxea...'. Hizlaria Bio-house enpresako kidea. Udal Aretoa.

Martxoak 7, osteguna:

18:00etan: Ipuin musikalak, Kometa ludotekan.

19:00etan: Geobiologiari buruzko hitzaldia: 'Etxea eta osasuna. Bien arteko zerikusia'. Hizlaria: Javi Petralanda. Udal Aretoa.

Martxoak 8, ostirala:

15:00etan: Irteera gidatu bat egingo da, ibilbidean zehar ikusten diren landareak identifikatu eta ezaugarriak ikasteko (irteera hau eskoletxetatik egingo da). Ondoren, sendagai diren landare eta zuhaixken lorategi finkoaren erakusketako izenak jartzea.

18:30ean: Lora lehorren ikastaroa. Ikastaro hau hiru ostiraletan burutuko da: 8an, loreen bilketa eta lehorketa (teoria); 15ean, koadroen osaketa; 22an, zentroen osa-



Azoka berdea igandean izango da.

keta. Eskulanetako gela (eskoletxetan).

21:00etan: Emakumezkoen afaria, Arrieta jatetxean.

Martxoak 9, larunbata:

11:00etan: Gazteentzako tailerrak.

16:00etan: VI. Joxe Kerejeta memoriala. Antolatzailea: Arkupe elkarte.

16:30ean: Azkona taldeko Kiki, Koko eta Moko pailazoak.

19:00etan: Olaberriko talogileek egindako taloak dastatu ahal izango dira, Arkupe elkartean.

22:30ean: Briganthya taldearekin musika zeltiarraz goza-

tzeko aukera izango da, Udal pilotalekuan. Sarrera: 3 euro.

Martxoak 10, igandea:

11:00etatik 14:00etara: Azoka berdearen irekiera. Bertan zenbait produktu ekologiko eta osasungarri ikusi, erosi eta dastatu ahal izango dira.

Garraioa antolatu ahal izateko, hitzaldi eta ikastaroetan parte hartzeko izena ematea komeni da. Horretarako Ludotekan eta udaletxeko tabloian jarriko diren zerrendetan izena eman dezakezue edo 943881434 telefono zenbakira deituz (Ana Mari).

ZUHAIZKI

S. A. L.

ZURGINDEGIA



x LEIHOAK, ATE-AK eta abar

x ESKAILERAK NEURRIRA



Cuatrovientos Industrialdea, 1
Txarama Auzoa
20491 LEABURU
Tfnoa.: 943 67 36 11
Faxa: 943 67 36 55

VOLVO



TOYOTA



ŠKODA


Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elekttrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
☎ 943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

iBai ONDO



AROSZTEGIA

instalazio berriak

Altzariak neurritan

Mota guztietako aroztegi lanak

PVC eta aluminiozko leihoen fabrikazioa

Logela, egongela eta sukaldeko altzari nahiz osagarrietan aukera paregabea

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47

Poltsikoko telefonoa: 639 631 640

Antzizar-Katea, 5 BEASAIN

Labur-labur

● **San Joanak.** Ekainaren 15 eta 16an XXVI. Euskadiko Dantza txapelketa. Festa egunak 21, 22, 23, 24 eta 25 izango dira.

● **Lantzeko inauteriei buruzko pintura erakusketa** Elorripe tabernan. Joxemari Telleriak 1976 eta 1977 urtetan egindako hamar pintura lan.

● **Kontzentrazioa plazan.** Otsailaren 22an, 'Euskal presoak Euskal Herrira' le-mapean 20:00etan. Antolatzailerak: 'Etxerat'.

● **Aste Santuko entsaioak.** Soldadu erromatar kornetajoleak aste honetan hasi dira entsaioekin. Korukoak ere, astero ari dira entsaioetan, ostegunero 20:00etan, Kultur etxean.

● **Frontenis txapelketa.** Udaleko haur, gazte eta kirol dinamizatzaileak bultzaturik eta gazteekin bildu ondoren, 13tik 16 urte bitartekoentzat frontenis txapelketa antolatu da. Izenak aste honetan emanda, asteburuan bertan hasiko dira partiduak. Norgehiagokak, neska zein mutilentzat, zapatuetan jokatuko dira Baratze Pilotalekuan.

● **Laiotz Herri Eskolan 2 urteko haurrentzat matrikula** zabalik martxoaren 1erarte. Arratsaldetan goiko eskolan.

● **Futbola.** Asteburuko emaitzak: **Errejonialak:** Kilimon 1-1 Segura. **Jubeni-lak:** Segura 2-4 Billabona. **Kadeteak:** Aizkorri 6-0 Intxurre. **Infantilak:** Aizkorri 2-1 Lagun Onak.

Asteburuan etxean: Kadeteak: Aizkorri-Ordizia (zapatuan, 15:30). **Errejonialak:** Segura-Soraluze (zapatua, 17:30).

Gipuzkoako ezigile txapelduna

Eugenio Elorza lore bakarreko ezigien irabazle

Gipuzkoako erlezainen elkartek Zegamako udalaren babesarekin antolatutako erlezainen egunean, otsailaren 17an, Gipuzkoako IV. Ezti txapelketa burutu zen Zegaman. Bertan, 40 ezigilaren artean, eta lore bakarreko ezigien sailan, Eugenio Elorza herritarraren ezigia aukeratu zuten hoberena. Txapela, er-

lezain irudia eta 25.000 pezeta sariak eskuratu zituen. Egun berean, ezigien egindako gozogintza lehiaketan, Ageda Zeberio herritarraren ezigia egindako sagar tartak sari berezia jaso zuen.

Eugenio Elorza ezigileak beste sari bat jaso du



Kirol eskolarra

Eskolarteko ibilaldi neurtua antolatzen

Segurako mendi elkarteak martxoaren 10ean herrian burutuko den eskualdeko ibilaldi neurtua antolatzen ari dira zeraindarrekin batera. Bertan parte hartzeko, izen-emateko orriak martxoaren 7rako bidali behar dira: Segurako Kirol Elkartea. Zurbano kalea, 27. 20214 Segura. Informazio gehiago, 943801797 telefonoan (astearte eta ostegunetan 13:30etik 15:30era).



Kirol eskolarreko mendizaleak, Ulija inguruan, Donostian

Futbol eskolarra

Otsailaren 23an, mutil alebinek 7ko futbola izango dute. Goizeko 10etan futbol zelaian, Ordiziako Urdanetakoen aurka. Egun berean, neska alebinak areto futboleko neurtuko dira Ordiziako Jakintzakoekin frontoi ondoan, 12:00etan.



Benjaminen taldeak Zegaman jokatuko du zapatu honetan Aitxurikoen aurka.

II. Lore eta landare azokaren inguruan


Herriko hainbat elkarte, talde nahiz partikularrek aste honetan burutu dute martxoaren 24an izango den azokarako 3. bilera. Azokaz aparte, beste bi ekimen ere burutuko dira:

● Errementari etxean, errementaritzaren lanak egiten zituzten sutegia eta etxearen kanpo aldeko perratokia martxan jarriko da.

● Juan Gorriti nafarraren eskultura lanak ikusgai Ardixarrean. Martxoaren 24an hasita Aste Santua pasa arte.



Martxoaren 24an Errementariaren sutegia eta perratokia martxan ikusteko aukera izango da.



Beasaingo Ikastola: izateko sortu, sortzeko izan

ZERGATIK HEZI ZUEN SEME-ALABAK ANDRAMENDI, BEASAINGO IKASTOLAN?

- ✓ *Euskaltzaleak zaretelako*
- ✓ *Itasleengandik eta gurasoengandik hurbilen dagoen ikastetxea nahi duzuelako*
- ✓ *Kalitatezko Hezkuntza nahi duzulako*
- ✓ *Euskal Herriak bere identitatea indartzeko ikastolak behar dituelako*
- ✓ *Kilometroak bultzatu dituzuelako*
- ✓ *Ikastolen mugimendua indartsua nahi duzuelako*
- ✓ *MEC-eko HEZKUNTZA KALITATEko sariketako Euskal Herriko finalista garelako (EFQM-ren arabera)*
- ✓ *Eleanitzak garelako Haur Hezkuntzaz geroztik, eta euskaltzaleak*
- ✓ *Idazkera, logika eta arte-lanketa goiztiarra lantzen dugulako*
- ✓ *Adimen Emozionaleko urratsetan pentsatutako proiektua eskaintzen dugulako*
- ❑ *ZERBITZUAK, Hezkuntza proiektuan txertatuak ditugulako*
- ❑ *HAURTZAINDEGI-zerbitzuak eta JANGELA urte osoan ditugulako*

eta bihotzak bakarrik ulertzen dituen beste milaka arrazoi medio
GARENA GARELAKO



ANDRAMENDI, Beasaingo Ikastola
Urbialde enparantza, z/g (MAPFRE gainean)
Eskaintza zabaltzeko beste 1300 m. CAIXAren ondoan
Tel.: 943 88 96 17 - 943 88 53 12
E-posta: beasain@ikastola.net
www.andramendi.com



Goierritik kanpo

(Alzaga, Arama, Ataun, Beasain, Ezkio-Itsaso, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zeraindik kanpo)

bizi zaretenok posta gastuak ordaintzeko derrigorrean bete beharreko txartela

Martxoaren 27rako
txartel hau beteta
bidaltzen ez
duenak, ez du
gehiago
GOIERRITARRA
jasoko

Goierritarra jasotzen jarraitzeko
Goierritik kanpo bizi direnek
derrigorrean bete beharrekoa

Izen-abizenak:

Helbidea:

Herria: Herrialdea:

Telefonia: Adina: NAN:

Kontu zenbakia (20 digitu):

Goierritarraren harpidedun naiz
eta hala izaten jarraitu nahi dut ☐

Ez naiz Goierritarraren harpide
eta hemendik aurrera izan nahi dut ☐

Bidali txartel hau helbide honetara: **Goierritarra, 124 Posta Kutxa, Ordizia**
Goierritarra Goierriz kanpo jaso nahi dutenentzat, posta gastuak ordaintzeko tarifak:

Martxoaren 27rako txartel hau
beteta bidaltzen ez duenak,
ez du gehiago
GOIERRITARRA jasoko

Hego Euskal Herria eta Espainia: urtean 12 euro
Ipar Euskal Herria eta Europa: urtean 24 euro
Europaz kanpo: urtean 36 euro

Martxoaren 27rako txartel hau
beteta bidaltzen ez duenak,
ez du gehiago
GOIERRITARRA jasoko

Santa eskea

Santa Ageda bezperan, etxez etxe kopla eta kantuz herri osoa alaituz kantari ibili zen 35 laguneko taldea. Herritarren erantzuna ezin hobea izan zen 1,362,66 ¢ bildu baitziren, Diru kopuru bikaina Zerain bezalako herri baterako. Diru hau, aurreko urteetan bezala, Gineako "Akonibe" herrira bidaliko da. Zeraingo herriak 1992. urtean izan zuen herri honen eta bertako beharren berri misiolari baten bidez, ordu ezkeror bertara zuzendu ditu bere dirulaguntzak.

Inauteriak

Inaute astelehenean herri eskolako haurrak ospatu zituzten inauteriak. Azken asteetan festa honetarako moztarrok eta ikuskizuna prestatzen ibiliak ziren eta astelehenean, indioz moztorturik kantuz eta dantzaz aurkeztu zuten egindako lana. Belen andereñoa zuzendari zutela Mikel, Josu, Andoni, Mikel, Ander, Jokin, Oihane, Irati eta Izar izan ziren antzezleak.

Herritar ugari bildu zen plazara, haurren ikuskizuna ikustera eta denak elkarrekin meriendatu eta dantza saio batekin bukatu zuten festa.



Mus txapelketa

Otsailaren, 10ean Liztormendi elkarteak jokatu zen mus txapelketa hogei bikotek parte hartu zuten. Arratsalde osoan lehiatu ondoren Zeraingo Juan Mari Izutueta eta Segurako Eulogio Albizuk osatutako bikotea izan zen irabazle.

Endika Alustiza memoriala

Martxoaren 3an jokatu da "Endika Alustiza Memoriala" bola txapelketa Liztormendi bolalekuan. Udala, Kultur el-

karteak eta Liztormendi elkarrekin antolatuta. Txapelketa hau goiz eta arratsalde jokatu da eta zortzi lehenengoak jasoko dute saria.

Mari Flor Mendizabal

Itsasondo

Hurrengo bideo emanaldiak

Bide on taldeak antolatutako bideo emanaldi dago kionean, datozen bi ostiraletan izango diren bideoak dituzue jarraian:

Gaur, otsailak 22, 'Mi nombre es Joe'.

Hurrengo ostiralean, martxoak 1, 'Poderosa Afrodita'.

Bideoak, Ertoetxan txukuntutako gelan eskainiko dira, gaueko 9,30etatik aurrera. Sarrera, euro 1 kobratuko da.

Ormaiztegi

'Konponbide demokratikoa'-ren aurkezpena

Batasunak, 'Konponbide demokratikoa' proposamenaren aurkezpena egingo du, otsailaren 26an, arratsaldeko 7etan, Udaletxe

azpiko aretoan. Aurkezpena irekia da eta herritar guztiak gonbidatzen ditu Batasunak.

Jon Agirrerekin batera Euskadiko txapeldun izan da azken bi urteetan

Asier Lasa besasaindarra rally kopilotua

Martxoaren 3an jokatu da IV. Gabiria-Legazpi rally-esprinta. Iazko lasterketan Jon Agirre azpeitiarra eta Asier Lasa besasaindarra izan ziren garaile. Duela bi urte Gabirian debutatu zuen kopilotu zereginetan, langintzaz mekanikaria den besasaindarrak. Azken bi urteetan Euskadiko rally eta rally-esprint txapeldun izan dira biak. Asierrek kontatu dizkigu bi urte hautako emaitzak eta aurrerako asmoak.

“Ezagutu nuenean, auto-kros txapelketetan ibiltzen zen Jon Agirre eta berari laguntzera joaten nintzen. 4 aldiz izan zen Espainiako txapeldun eta rallyekin hastea erabaki zuenean, ni hasi nintzen berarekin kopilotu beza-la”, dio Asierrek.

2001eko denboraldian Citroen ZX batekin hasi ziren



eta gero aldatu egin zuten. “Kaleko Mitsubishia erosi eta gero guk muntatu genuen. Italiara joan nintzen hango prestatzaile batengana”, adierazi digu Asierrek.

Aurtengorako asmoak

Oraindik zehazteko daukate aurtengo denboraldia, Espainiako txapelketan parte hartuko duten edo ez. Diru arazoak direla eta zalantzan baitaude. “Maiatzean hasten da Espainiako txapelketa. Enpresen erantzunaren zain gaude. Diru asko behar da. Karrera bakoitzeko 3 milioi pezeta be-

har dira eta 10 karrera badi-ra. Sarietan diru gutxi jasotzen da”. Beraz, Espainiako jokatzeko adina ez badute biltzen, Euskadikoan arituko dira. “Euskal Herritik kanpo honetatik bizi direnak badaude, baina hemen oraindik ez da posible, eta lana egiteaz gain, batera eta bestera mugitzea oso gogorra da. Hemendik kanpo 140 milioiko autoak erosten ari dira... 500 milioiko aurrekontuak dituzte”, dio besasaindarrak.

Espainiako txapelketa jokatzekotan autoa aldatu egingo lukete. Citroen Saxoa

erosteko asmoa dute, baina, momentuz Mitsubishi autoarekin dabilta. Lur gaineko eta asfalto gaineko rally txapelketak jokatzeko dira eta Agirre-Lasa bikoteak asfalto gainekoan parte hartzen du. Rally esprintetan ere parte hartzen dute. Igoeretan momentuz ez dute parte hartzen.

Kopilotuaren lana

“Sufritzen duena da kopilotua. Tentsio eta kontzentrazio handia eskatzen du lanak”. Ofizinalisten lanarekin konparatzen du Asier Lasak kopilotuaren lana: “ordutegiaren arabera joaten da dena eta kopilotuaren lanik garrantzitsuena oharrak ondo hartzea da. Auto normalarekin egiten diren entrenamenduetan, oharrak edo zeinuak idazten joaten gara. Bidea ez da ezagutzen, orduan kurbak nolakoak diren, zenbat metro dauden, zuloak dauden, erreferentzia puntu ezberdinetatik zein denboretan pasatzen den, kurbak nola hartu... Kurba bakoitzari zenbaki bat jartzen zaio eta zenbat eta zenbaki handiagoa, orduan

AMEB

Sagardotegia

© 943 16 25 23

Zubierreka,9 LAZKAO

Barandiaran ZERAMIKAK

- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 Senpere, 7 BEASAIN



eta azkarrago har daitekeela esan nahi du. Karrera garaian, aurretik hartutako oharrek esaten dizkio kopilotuak pilotuari. Esaera bat badago: kopilotuak ez du karrerarik irabazten, baina galdu bai. Galduz gero, kopilotuari botatzen zaio errua normalean. Kopilotua despitatuz gero arazoak sor daitezke. Kopilotuaren beste lan bat zera da: karrera batek bi zati baldin baditu, batetik bestera joateko zehaztutako bideetatik joan behar izaten da, denbora zehaztetan. Kontrolatan denbora zehaztetan sartu behar da bestela penalizazioak egoten dira. Segundu bategatik, minutuko penalizazioa eman dezakete eta hori ezin izaten da gero karreran berreskuratu. Beraz, kopilotuak bideratu egin beharko du pilotua”.

Kopilotu-pilotu arteko konpenetrazioa oso garrantzitsua da. “Esaten da, kopilotua pilotuaren psikologoa dela, guztia agoantatu behar duena... Denetik egin behar

izaten du kopilotuak. Tentsio momentuak izaten dira”.

Zaletasuna

Euskal Herrian geroz eta zaletasun gehiago dago. “Ikusle gehiena Azpeti eta Bilboko lasterketetan izaten da. Asturiasen eta Galizian zaletasun handia dago. Tourraren pare. Jendea entrenamenduak ikustera joaten dira, aurreko egunetik kanpinean leku hartzera...”

Abiadura eta segurtasuna

220 kilometro orduko hartu izan dute lasterketetan, ahal dutenean. Gabiriako kasuan, 140-150 inguru. Asier Lasak adierazi digunez, ordea, ez dute abiadura markagailuari begira joateko betarik izaten.

Nahiko kirol segurua dela dio. Iaz 3 aldiz atera ziren errepidetik, baina susto handirik gabe. “Segurtasun aldeetik asko zaintzen da. Gero eta baldintza gehiago behar ditugu, eta hori ondo ikusten dut”.

IV. Gabiria-Legazpia rally-esprinta martxoaren 3an

Arratsaldeko 3etan Gabiriako Korta erretegi aurretik hasita, 4 orduz motor hotsa eta gasolina usaina izango dira nagusi Mottorro bidean. Laugarren urtez jarraian Gabiria-Legazpia rally-esprinta jokatu da. Gabiriatik Legazpirako bidean bi aldiz joan eta bi aldiz etorriko dira autoak. Lagun-Artea eskuderiak Gabiriako hainbat gazteren laguntzarekin antolatzen duen lasterketan 12 kategori desberdinetan parte hartuko dute lehiakideek eta denboraldiko lehen lasterketa izanik parte hartze handia izan ohi da. Irabazlearentzat 540 euroko saria izango da, bigarrenarentzat 450ekoa, hirugarrenarentzat 360ekoa... Honez gain kategori bakoitzeko 3 lehenek ere sariak izango dituzte.

Gabiriako rally-esprinta berezia izaten da Asier Lasak zehaztu digunez. “Denboraldi hasiera izaten eta jendea aspal-di karrerarik ikusi gabe egoten da. Gainera ikusmin handia egoten da, bakoitzak zein auto eramaten duen eta abar”.

Kirola bi lerrotan

Iberdrolak txirrindularitzarako dirurik ez

Iberdrola enpresak kirola eta kulturarako bideratzen zituena diru-laguntza guztiak bertan behera utzi ditu. Hori dela eta Beasaingo Loinaz T.E. bere babesle nagusirik gabe geratu da. Denbotaldia hasteko dena prest zutenean, egun batetik bestera jaso dute berria Loinazkoek. Beraien proiektua aurrera ateratzeko beste babesleren bat aurkitzeko lanetan dabilta orain.

Mikel Gaztañaga 6 orduetan

Aurtengo Euskadiko 6 orduetan 11. postuan bukatu zuen Mikel Gaztañaga itsasondoarrak Elorriagarekin bikotea osatuz. Joseba Beloki lazkaotarrak irabazi zuen eskala-tzaileen artean jokatu zen proban.



F.M. 89.2

EGUNEKO
24 ORDUAK
ZUREKIN



- Pintxo hotz eta beroak
- Ogitaratekoak

Legazpi kalea, 3 **ORDIZIA**

ZINEA

GOIENIZ

GOIENIZ

Martxoak 7, 'La pianista',
21:00etan, Usurbe
Antzokian.

Martxoak 21, 'Last Resort',
21:00etan, Usurbe
Antzokian.

ITSASONDO

Otsailak 22, 'Mi nombre es
Joe', Ertoetxen, 21:30ean.

ORDIZIA

'Juana la loca',
Otsailak 22: 22:15
Otsailak 23: 19:30 - 22:15
Otsailak 24: 19:30 - 22:15
Otsailak 25: 19:30.

'Eguberrietako ipuia',
Otsailak 24: 16:45.



'La pianista'

Michael Haneke
(*Fran-Aus*, 2001)

Erika piano irakaslea da Vienako kontserbatorioan. Berrogei urte bete berria, amarekin bizi da eta haren eragin itogarritik ihes egitearren, zinema eta ikuski-zun pornoetara joaten da. Bere sexualitatea, iluna eta bihurritua dela esan daiteke, "voyeur" asegaizateaz gain, bere gozamenaren ukazio masokista egiten baitu. Erika eta bizitza elkarren aurka doaz, ikasle bati bera erakartzea eta limurtzea bururatzen zaion arte.

antzerkia

BEASAIN:

Otsailak 22, 'Dulce Puta' antzezlan, Txalo Produzioaren eskutik, Usurbe Antzokian, 22:15ean, Antzerki Garaia barruan. Sarrera: 7 euro.

musika

OLABERRIA:

Martxoak 9, Briganthya taldearen musika zeltiarra, Udal pilotalekuan.

pailazoak

OLABERRIA:

Martxoak 9, Azkona taldeko Kiki, Koko eta Moko pailazoak, 16:30ean.

hitzaldiak

OLABERRI:

Martxoak 5, 'Nerabezaroa aurrera eramateko modu ezberdinak', Lurdes Oterminen eskutik. Udal liburutegian, 18:30ean.

Martxoak 6, 'Sostenuzko eraikuntza, eraikuntza ekologikoa, energi kontsumo gutxiko etxea...', Biohouse enpresako kide baten eskutik, Udal aretoan, 19:00etan.

Martxoak 7, 'Etxea eta osasuna, bien arteko zerikusia', Javi Petralandaren eskutik, Udal aretoan, 19:00etan.

bestelakoak

BEASAIN:

Otsailak 27, Itziar Zubizarreta ipuin kontalaria, Ezkialaga Auzo etxean, 18:00etan eta 18:30ean.

Martxoak 7, Arrate Leunda ipuin kontalaria, Kultur etxean, 18:00etan eta 18:30ean.

OSKARBI
OINETAKOAK

Dr. J. M. Martens

Mota guztietako eta adin guztientzako oinetakoak.

Kickers

K. Nagusia, 25
☎ 88 19 44 **ORDIZIA**

Olagi Sagardotegia

Eguerdietan ere zabalik

Urte guztian sagardotegiko menua eta karta

☎ 943 88 77 26 **ALTZAGA**

GABINETE PSIKOLOGIKOA

ARPE

Pedro Jose Landa Gutierrez
PSIKOLOGOA
Kol. Zkia. E - 1687

- * Depresioak
- * Harremanetarako arazoak
- * Beldurrak
- * Antsiak
- * Segurtasun eza

Ordua eska ezazu konpromezurik gabe
☎ 943 674 619 Nafarroa Etorb. 25 - 1. ez. **BEASAIN**

MUGICA 19

MUJKA
LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

erakusketak

BEASAIN:

Irailaren 30era arte, Ars Ligna erakusketa, Igartza jauregia.

Otsailaren 28ra bitartean, Mary Francoren koadro erakusketa, Aterpe Tabernan.

Otsailean, Benito Canteroren argazkiak, Zinema Tabernan.

Otsailaren 10era arte, Alberto Torresen eskultura lanak, Usurbe antzokian.

Otsailaren 15etik 24ra, Coprodeli, Liman behartsuenei laguntzen lan egiten duen GKE-ren erakusketa, Usurbe antzokian.

ORDIZIA:

Otsailaren 8tik 28ra, Barrena Kultur Etxean, Jokin Telleria artistaren pintura erakusketa.

bertsoak

ZEGAMA:

Otsailak 23, 2001eko zortzi finalistak: Igor Elortza, Unai Iturriaga, Jesus Mari Irazu, Sustrai Colina, Jon Maia, Aitor Mendiluze, Maialen Lujanbio eta Andoni Egaña. Kiroldegian, 22:30ean.

ikusentzuneakoak

BEASAIN:

Otsailak 22, 'Andeak' diapositiba emanaldia, T. Sarasolaren eskutik, Aitzgorri Mendizale Elkartearen, 20:00etan.



Barrena Kultur etxean, otsailaren 28ra arte

Jokin Telleriaren pintorearen erakusketa Ordizian

Ataunen jaio eta Beasainen bizi da Jokin Telleria. Sari ugari irabazita-koa eta beste hainbeste erakusketa egindakoa, Ordiziako Barrena Kultur etxean ikusgai dago Telleriaren erakusketa. Honela deskibratzen du bere lana:

"Gehienetan kurikulum luze eta ponpoxo bat, lan on eta sendo batekin, lotuta joan izan da, baina ez beti. Esango banizueke, sari ako han eta hemen jasoa ditudala, eta nire bizitzan zehar egindako erakusketak zerrenda, luze bezain aberastea dela. Adierazpen horiek, nire lana ez luke artistikoagoa egingo. Ikuspegi kritikoa dutenak konturatuko dira ezer gutxiarako balio duela horrek, batez ere, nire margolanak begiratzera koan, ezertxo ere ez balizuke adieraziko, edo gustukoak ez badira. Ez naiz ni izango, kurikulum baten bidez, zuei iritzia aldatzen ahaleginduko dena. Baina oso pozik geratuko nintzateke, zuen sentsibiltatea hunkituko balizueke, eta oraindik gusturako, beraiekin solasaldia izango bazenukete, nahiz laburra izan".

Barruko borroka

Begietatik
sartzen zait argia,
begietatik
sartzen zaitkit koloreak,
begietatik
sartzen zaitkit irudiak,
denak batera eta nahasian
burmuineko eltzean
garuna irakiten jartzean
korapilatzen zaitkit nere barnean,
denak pilatu, denak sailkatu
kanpora atera nahi
eta irudia ezin finkatu,
eskua martxan jarri ondoren
zirriborroak eta koloreak agertu,
azkenean irudimena zait lertu
barruak bare, sinatu eta bukatu.

GOARDIAKO FARMAZIAK



Astegunetan: Azpilikueta
(Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.

Otsailak 23-24: Azpilikueta
(Kale Nagusia, 18 - Beasain). 943 880152.

Martxoak 2-3: Arriola
(Plaza Nagusia, - Ordizia). 943 882628.

Otsailaren 9an irekiko dugu

ZALBIDE
TOLARE
SAGARDOTEGIA

Arraiak parrilan

© 943 65 21 76 ABALTZISKETA



GESTORIA BIOK

ASEGUROAK

- ✕ Aholkularitza laborala eta fiskala
- ✕ Jubilazio, bizitza, etxebizitza eta kotxe aseguruak

☎ 943 88 44 00 - 943 88 12 58

Goierri, 12

ORDIZIA

LEIAR
KRISTALDEGIA


ERAKUSKETA:

Ezkiaga Pasealekua z/g ☎ 943 88 88 24

BILTEGIA:

Salbatore Industrialdea ☎ 943 88 60 70

BEASAIN



Etxebizitzak

salgai

➡ Beasainen etxebizitza salgai. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea eta egongela. 679556594.

➡ Goierri txalet adosatua salgai. 150 m². Sukaldea jantzia, 2 logela, egongela, bainugela eta komuna, 2 autorentzako garajea, 250²ko lorategia. 30.500.000 pezeta. Mandio. 699936801.

➡ Idiazabalen pisua salgai. 91 m²koa. 609349630.

➡ Ordizian etxebizitza salgai. 3 logela, 2 bainugela, sukaldea jarrita eta egongela argitsua. 669400513.

➡ Baserria salgai Zegaman. Terreno onekin. 943510851.

➡ Beasainen 3 logelako etxebizitza salgai. Eguzkitsua eta alaia. 943027138. 20:00etatik aurrera deitu.

➡ Donostian, Groseko geltokiaren ondoan, etxea salgai. 2 logela. 659729135. Arratsaldeko 5etatik 9etara deitu.

errentan

➡ Urbasako mendilerroan etxea alokatzen da asteburu, zubi eta oporretan. 948539381.

➡ Astigarretan edo Mandubi inguruan txabola edo pisu txiki bat alokatuko (edo erosi) nuke. Berdin da zein egoeratan dagoen. 943886610.

Garajeak

errentan

➡ Bi garaje alokatzen dira Jose Lasa kaleko 5. zenbakian. Lur azpikoak. 943885574. Iluntzetan deitu.

salgai

➡ Zaldibian Ostatuburu etxean garajea salgai, entreplantarekin. 943881978.

Bestelakoak

salgai

➡ Bideo kamera salgai. Ordubete baino gutxia erabilia. Berritan 130.000 pezeta balio zuen; orain, 75.000. 660024835.

➡ Sutarako egurra salgai. Haritza eta haritz amerikarra. 0,03 euro edo 5 pezeta kiloko. 943887827. Zaldibia.

➡ Karabana salgai. Büstner 430. Oso egokira onean. Bi abantzeekin (udakoa eta negukoa). 21:00etatik aurrera deitu. Mikel (943887573).

➡ Zeus markako errepedeko bizikleta salgai. Kanbioak manilarrean ditu. Ez erabiltzeagatik oso egoera onean. Bizikletan ibiltzeko zapatilak emango nituzte. 943800336 - 605720890. Arratsalde edo iluntzetan deitu.

➡ Karabanarentzako estabilizadoreak salgai. 75 euro. 943725052.

➡ Eskiak salgai. 2 metrokoak. Volki markakoak. Egoera onean. 15.000 pezeta edo 90 euro. 943886709 - 6463393334.

➡ Comanche Puluma 3 modeloko gurdi kanpina salgai. Egoera onean eta prezio interesgarrian. 943889345. Unai.

➡ Ordenagailurako programak eta jokoak, bertan ikusteko pelikula (divx formatoan) eta Dreamcast-erako jokoak saltzen ditut oso prezio onean. Seriotasuna eta kalitatea. 658751318. josex52A--hotmail.com.

➡ Gas gas HusuQvarna salgai. 92. urtekoa. Matrikuladuna. 943885006.

➡ 3 urteko Rossignol eski pareta salgai. Fijazioak estrenatzeko. 670428820.

➡ Sekadora besoein eta tintarentzako baporea salgai. 50.000 pezetan. 943883180.

Animaliak

salgai

➡ Suitza arrazako behia salgai. Umea egiteko puntuan. 943683290.

➡ Mastin pirenaiko eta pastor aleman gurasodun txakurkumeak salgai. Oso merke! Iluntzetan deitu. 605708502.

opari

➡ Txakur polita opari, ezin zaintzeagatik: Siberian husky eta artzain txakurraren nahasketa. Begi bat urdina eta beste marroia. 609735132. Enrike.



X ENKEGI
ETXE-AROZKINTZA
Diseinuak neurritan

Erakusketako Tel-faxa: 943 889113
Tel mugik.: 619 487056
Senpere Merkatalgunea, 25

Sukaldeak
Ateak
Zorruak
Armairuak

BEASAIN



Ibilgailuak

salgai

➔ Honda CBR 600 motorra salgai. 92. urtekoa. Egoera onean. 636563841.

➔ Toledo TDI (110cv) salgai. 4 urte. 82.000 km. Extrekin. 653719224. Oso egoera onean. Beti garajejan egona.

➔ Volkswagen furgoneta salgai. Sukaldearekin eta ohearekin ekipatua. 620860285.

➔ Renault 19, 16 v. 140 zaldi, salgai. Urdira. SS-AN. 658701815.

➔ Mitsubishi Montero luzea, 2800 turbodiesela, salgai. 95. urtekoa. Ondo zaindua. 659422331.

➔ Hyundai coupe 1,6 16v slgai. 1999. urtekoa. 1.350.000 pezetan. Extrak: eskiatzeko soportak, kate automatikoak, faldoiak, alarma, kristal-jasogailu elektrikoak, ispilu elektrikoak, itxiera zentralizatu... 686334037. Arratsaldeetan deitu.

➔ Renault-5 Oasis autoa salgai. Egoera oso onean. 200.000 pezeta. 19:00etatik aurrera deitu. 620256197.

➔ Scooter motoa salgai. Aprilia SR50DI. Zozketan tokatua, berriberria. 656415761.

➔ Seat Malaga 1.300 salgai. SS-AF. 72.000 km. ITV pasatuta eta aseguru abuzturarte. Oso ekonomikoa. 943887163.

➔ Larunbat gauetarako neska bat behar da sagardotegirako. Ez da beharrezkoa esperientziaduna izatea. 943887726.

➔ Neska gazte euskalduna behar da 9 urteko haurra, goizetan, eskolara eraman eta etxera ekartzeko. 943028506.

eskaintzak

Lana

eskaerak

➔ Pertsona euskalduna behar da tabernan astebukaeran lan egiteko. 943160205 - 943886577.

➔ Pertsona bat behar da Ordizian irekitze dagoen elkarte batean garbiketa lanak egiteko. 943087275.

➔ Gitarrista behar da gaupasetako talde batean jotzeko. Esperientziaduna. 653734327. Oiane.

➔ Jatetxe baterako sukaldaria behar da. 943086505.

➔ Segurako Elorripe Herrikoan langile liberratua eta euskalduna behar da. 943801002.

➔ Asteburuetarako kamarera euskalduna behar da. Esperientzia eta autoa izanez gero, hobe. 943880044.

Langai

Euskal Lan Zerbitzua
Eusko Jaurilaritza

Lan eskaintzaren bat interesatzen bazaizu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.
Goierriko Herrien Ekintza
943 884 401

OKINA

Goierri. Erref. 70305/4

KAJERA APRENDIZA

Beasainen. Erref. 70625/1

GOZOGILEA

Goierri. Erref. 70749/3

KATAGOLATZAILEA

Goierri. Erref. 71701/4

GOZOGILEA

Ordizian. Erref. 71573/3

MAKINARIAREN MANTENIMENDUA

Goierri. Erref. 71740/1

ZERBITZARIA

Tolosan. Erref. 70780/6

MANDRINATZAILEA

Billabonan. Erref. 71532/1

PEOI ESPEZIALISTA-TORNEROREKTIKATZAILEA

Tolosan. Erref. 70924/1

ADMINISTRARI TEKNIKOA

Tolosan. Erref. 70940/2

ADMINISTRARI LAGUNTZAILEA

Tolosan. Erref. 70944/1

AJUSTATZAILEA???

Tolosan. Erref. 71690/2

ZERBITZARI LAGUNTZAILEA

Tolosan. Erref. 70691/1

SUKALDARI LAGUNTZAILEA

Tolosan. Erref. 70778/4



Goierriko
Akademia
integrala

Interneten: Kontsultatu irakasleari
Beharrezko informazioa aurkitu
ikastekakademia@latinmail.com
<http://usuarios.tripod.es/ikastek>

Joan Iturralde, 5 ☎ 943 160 120 BEASAIN

ESKOLA LAGUNTZA

- ✳ Gai eta maila guztiak
- ✳ Lehen Hezkuntza
- ✳ DBH, DBHO, Modulook
- ✳ Zikloak

GOIERRIKO UNIBERTISTATEA

- ✳ Marrazketa
- ✳ Fisika
- ✳ Matematika
- ✳ Teknologia

IKASKETA ARAZOAK

- ✳ Errendimendua
- ✳ Ohiturak, metodoak
- ✳ Atentzioa
- ✳ Emozioen kontrola

UNIBERTSITATE MAILA

- ✳ Enpresaritza
- ✓ Kontabilitatea, kalkulua
- ✓ Fakturazioa, estatistika
- ✓ Matematika (finantziera...)



Nafarroa
Etorbidea, 9

EGUZKI
INPRIMATEGIA

☎ 943 88 94 82

BEASAIN



Ordiziako Santa Ana ikastetxeko ikasleak

Santa Ana ikastetxekoak dira, 1966-1967 ikasturtekoak. 8 urte zituzten. Juan Martin Munduatek utzi digu argazkia. Munduateren nahia zera da: guztiak elkartu eta afalondoren beste argazki bat egitea. Harremanetarako telefonoa ere eman digu: 943084296.

Goiko ilaran, ezkerretik eskuinera: Don Joakin, Jose Luis Legorburu, Teofilo Gomez, Gregorio Fernandez, Marzial Urietagoiena, Ramos, Manolo Lozano, Kerejeta, Ramon Nadal, Jose Mari Carrion, Natalio Flores, Carlos Ramos, J.J. Garcia, Juan Mari Goenaga, Jose Mari Martinez eta Juan Carlos Margareto.

2. lerroa: Manolo Maria, J. Luis Fernandez, Jose Antonio Trujillo, Juan Carlos Alonso, Juan Martin Munduate, Cruz Damian Goitia, Kepa Mujika, Rafa Letamendi, Jose Mari Larrañaga, Juan Manuel Lertxundi, Txema Irastorza, Jose Manuel Ezkerra, Rafa Arizmendi, Fernando Usabiaga, Aitor Imaz, Patxi Senar eta Antxon Crehueta.

3. lerroa: Jose Antonio Luengo, Carlos Iturrioz, Iñaki Lekuona, Jose Luis Sebastian, Jesus Martin, Peio Otegi, Ruben Vazquez, Jose Ignacio Calvo, Guillermo Lazkano, Jesusin Alvarez, Eugenio Irastorza, Jose Luis Lizarbe, Jose Antonio Dopazo, Eduardo Dubreuil, Mikel Sarasola eta Javi Perez.


4. lerroa: 'Pipo' Urkiola, Antonio Ortega, Joakin Elkorro, Fermin Bola, Iñaki Lasa, Javi Arana, 'Kike' Niño, Miguel Cavero, Luis Antolin, Jose Luis Bueno, Felipe Sarasola, Patxi Garmendia eta Jabier Zurutuza.

lues rothers
BEASAIN

Kubako bidaietan berezitasuna
Bilbo-Habana-Bilbo
Urtarrilaren 1etik 21era
561 euro
Elosegi, 17 LAZKAO
Tel.: 943 889 291 Faxa: 943 883 971
e-posta: algoz@wanadoo.es

PSIKOLOGI KLINIKOA
AGI
Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 42095
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN
Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak
AURRE ZITA
☎ 943 887 221
☎ 610 020 041

URDANETA-OIANGUREN ORDIZIAKO IKASTETXE PUBLIKOA




Errealitatean murgilduz ikasten



URDANETA E.P.
Inhausti Plaza, 6
Tfnoa.: 943 88 27 80
Faxa: 943 80 53 10
012279aa@hezkuntza.net




OIANGUREN B. I.
Altamira Auzoa z/g
Tfnoa.: 943 88 08 62
Faxa: 943 16 41 21
012282aa@hezkuntza.net



Gure gazteen formakuntza lantzen

• 2 - 20 urte zentru berean

• Eleaniztasuna (4 urtetik ingelese, DBHn ingelese ez ezik frantsesa edota alemana).





SIBONEY

ana cristina olano

Solarium Bonoa

36€/ 10 Sesio

Automakillaje ikastaroak

Mikro-pigmentazioa

MIKRO-PIGMENTAZIOA



LEHEN

ORAIN

Automakillajeko ikastaroak

Opariak

Valentino
Pertegaz
Balenciaga
Gianfranco Ferre

Eskeintza eta Opari Bereziak

SHISEIDO
The Makeup

GUERLAIN
PARIS

Tel. 943 88 15 50 - Joan Alkalde, 3 - Beasain